

2015eko Urtarrila

K

Oñati-ko Udala 245. zkin.

KONTZEJUPETIK



musikala

Ganbara Txiki-ren 10. Urteurrena



ALTXORRAREN UHARTEA

Stevenson-en abentura-eleberrian oinarritutako musikala taularatuko du Ganbara Txiki abesbatzak urtarrilaren 17an

pinturas
MUÑOZ
margoak

*MARGOAK, ATE METALIKOAK
eta ATE AUTOMATIKOAK*

Olakua 7, behea
Tel.: 686 975 819
20560 Oñati



Formatu digitalean irakurtzeko aukera
www.euskadi.net
[/eliburutegia](http://eliburutegia)



Betebeharrak

1. Sareko liburutegi bateko bazkide izatea. Gogoratu, oraindik bazkide txartelik ez baduzu, hurbilen duzun udal liburutegian eska dezakezula.
2. Interneteko konexioa
3. Irakurgailu bateragarria eta Interneterako sarrera edukitzea



E-liburutegiaren mailegu baldintzak

- Maileguen iraupena 21 egunekoa izango da.
- Erabiltzaile batek gehienez bi liburu hartu ahal izango ditu maileguan aldi berean. Bi maileguz gain, aldi berean bi liburu erreserba egiteko aukera izango du.
- Mailegua iraungi baino 5 egun lehenago, gogorazteko mezua bidaliko zaio erabiltzaileari.
- Mailegatutako liburua eskuragarri egon daiteke 6 gailutan eta 6 ordenagailutan aldi berean.

Mailegu zerbitzu berri honen inguruko edozein zalantza argitzeko, zure liburutegira jo ezazu. Bertan emango dizkizute behar duzun informazioa eta argibide guztiak

NEGUKO GIDA

Urtero bezala, Gabonetako oporren atarian liburu gomendagarrien gida argitaratu du Udal Liburutegiak eskualdeko Hizkuntza eta eduki aldetik kalitate aipagarria duten 39 liburu jaso dituzte, adinka sailkatuta. Irakurgarriez gain, bosna CD eta DVD ere gomendatzen ditu gidak. Liburutegian bertan edo www.oinati.eus webgunean ere kontsultatu daiteke gida.

TXALOKA Ludoteka

ATE IREKIAK egunero.
Hurbildu eta ezagutu gaitzazu!

ASTELEHENETIK OSTIRALERA 16.45-19.45

TXALOKA LUDOTEKA

Azaleko argazkia: Natxo Santos

GUTUNAK

Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera datu hauek bidali beharko dira: igorleraren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g • 20560 • OÑATI / Tel.:943 78 20 72 / Posta-e: kontzejupetik@oinati.net

Eskerrik asko

Idoia Lazpita, Oñatiko
Udaltzaingoaren izenean

Ohar labur honen bidez, Oñatiko Udaltzaingoak eskertu nahi ditu jaso dituen maitasun-adierazpen guztiak. Hainbat udaltzainek lanean ari zirela jasadako eraso delat-eta Euskadiko udaltzainen familiak eta Gobernu Taldeak eman diguzuen babesagatik eta, batez ere, oñatiar guztiek une gogor hauetan erakutsitako berotasunagatik gure esker ona adierazi nahi dugu. Eskerrik asko, guztioi.

Esker onez

Jose Antonio Urteaga
(Misio Taldea)

Parrokiako Misio Taldearen izenean eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu musika bandak eta herriko hainbat abesbatzek parrokiaren eskaini zuten Gabonetako kontzertuan egindako diru-batzean laguntza eman zuten herritar guztiei. Bertan batutako dirua Haitiko Maribal herrian eraikitzen ari garen eskolaren proiektura bideratuko dugu.

Eskerrak baita ere, jakina, kontzertuaren arduradunei, diru-bilketa egiteko aukera eman zigutelako.

FUTBOL SAILA

Gabonetako zozketako zenbaki sarituak:

1. saria: **2892** (ordezkoa: **0078**)
2. saria: **7501** (ordezkoa: **8429**)
3. saria: **4315** (ordezkoa: **8139**)

Urtarrilaren 5a baino lehen saritutako zenbakien jabeak agertuko ez balira, ordezkioak izango lirarteke baliozkoak.

URBIA TABERNAKOEN IZENEAN ESKER ONEZ

Taberna honek Urbia aldian izan zuen hasiera artzai txabola txikitxo hartan ikusi gendun aukera ardiak zaindu, jendea zaindu bi ofizio batera urteak pasa ondoren jetsi giñen Oñati aldera.

Artzai txabolak eta tabernak badute bere lotura Oñatik inoiz ez du ahaztu mendiko pasarte hura ustez aritu gera lanean garai haietan modura oroimen hori mantendutzia besterik ez genuen gura.



Gure eskerrak urte hauetan bezero izan denari gure jangela humiltasunez alai bete duenari ilusioa ta bizipoza beti eman digunari bihotz bihotzez eskerrik asko Oñatiko herriari.

Doinua: Aita jainkuan egin banindu... Hitzak: Gorka Maiztegi

OHAR ETA DEIALDIAK

Musika taldeentzako deialdia

ETEO-n egingo dian musika entsegu lokal berrixetan entseatzeko lekua gura dauen talde danak, jakin dezatela Oñatiko Musika Taldeak izeneko taldia hile bakoitzeko lehenengo astelehenean, arratsaldeko 19:00retan batzen gariela antixenako gaztetxian. Bertara etorri biharko dia ETEO-n lokal biharra dakoin musika talde edo norbanakuak.

Bidebarrietako edukiontzi zuria

Bidebarrieta kaleko 22-24 atarien aurrealdean dagoen edukiontzi zuria ACESMA elkarteak kudeatuko du hurrengo bi edo hiru hilabeteetan, Kubara bidaltzeko prestatzen ari diren laguntza kontainera osatu arte. Bestalde, gogoratu Hermansoloñaren elkartasun tailerrak zabalik jaraituko duela, eta, bertara ere eraman daitekeela Argentinara edo Kubara bidali nahi den edozein material.



Tokiko Gobernuari Galdezka



ENERGIA BERRIZTAGARRIAK



Energia berriztagarrien inguruan espainiak ministeriotik ordainsarietan aldaketa sakonak izango dira aurrerantzean. Oñatiko Udalak Olateko ur saltoa erosteko inbertsio handia egin zuen. Aztertu al du udalak nola eragiten dion legedi aldaketak? Horrela bada zein balorazio egiten du?



Oñatiko Udalak 1989an erosi zuen aipatu zentrala eta horretarako 5.108.602 EURko (850 milioi pezeta) mailegua eskatu zen. Mailegua 1994an hasi zen amortizatzen eta 2007an ordaintzen bukatu zen.

Espainiar estatuko Ministerio de Industria Energía y Turismo delakotik energia berriztagarriei orain arte eman zaien ordainsari politikan aldaketa sakonak egin dira. Ziurgabetasun egoera hau kontuan izanik, Oñatiko Udaletik 2014 haseran txosten bat eskatu zitzaion Oñatiko Ur Jauziak-en auditoria egiten duen aholkularitza enpresari bi galderari nagusiri erantzuteko helburuarekin.

-Zein errentagarritasun eskaini dio gaur arte Oñatiko Udalari Oñatiko Ur Jauziak-en eginiko inbertsioak?

Sorreratik 2013ko Abenduaren 31arte Oñatiko Udalak Oñatiko Ur-Jauziak elkartearen egindako inbertsioaren TIR-a negatiboa izan da, zehazki %-5,36koa.

Sozietatearen 2013ko abenduaren 31ko fondo propioak azken fluxu moduan sartzen baditugu kaulkulan, TIR-ak negatiboa izaten jarraitzen du, baina kasu honetan %-0,14koa.

-Ze bilakaera izan dezake Oñatiko Ur Jauziak-en jardunak Ministerioaren ordainsari politikan izandako aldaketak direla eta? Etorkizunean eduki dezaken bilakaerari dagokionez, energia elektrikoaren ekoizpenaren gainean indarrean sartu den legedi berria aintzat hartu behar da.

Egindako estimazioen arabera, 2014ko salmentak 2013koak baino %53 txikiagoak izango dira eta ustiapeneko emaitza, berriz, %79. Dena dela, txostena egin ondorenean, legedian beste aldaketa batzuk ere izan ziren eta 2014ko itxieraren zain, ez da

aurreikusten fakturazioan haseran aurreikusi bezalako jetsierarik izango denik. Oñatiko Udaletik EEE(EVE)-rekin elkarlanean Ministerioaren aurrean errekurtsioak jarri dira eta erantzun zain jarraitzen dugu.

AITA LIZARRALDE KALEKO SEMAFOROA



San Martin eta Aita Lizarralde kaleen arteko bidegurutzean semaforoak jartzea eskatuko nuke, lehen bezala. Oinezkoen eta bizikleta zaleen segurtasuna hobetuko luke, eta, bestetik, trafikoa erregulatuko luke; gaur egun San Martin inguruko bizilagunak errotondatik errotondara ibili behar izaten dugu, eta puntako orduetan denbora gehiegi itxoin behar izaten dugu bidegurutzean.



Errepide hori GFAarena da eta aurreko legealdian semaforoak kentzearen erabakia hartu zen beste mota bateko oztopoak jartzeko asmotan (Euskadi Etorbidean dauden bezalakoak). Gauza da oztopo hauek ez zituela aldundiak onartu eta egia da bidegurutze hori arriskutsu bihurtu dela, batez ere zebra bidea. Aztertuko dugu gaia zein alternatiba izan daitekeen aurrera eramateko egokiena.

APARKALEKU ESKASIA SAN MARTINEN



San Martin auzunean, goiko aldean batez ere, aparkaleku gutxi daude. Kontuan hartuz oraindik lau etxe-bloke geratzen direla egiteko, aparkaleku gehiago jartzea pentsatu al duzue?



San Martingo urbanizazioan aurreikusten diren aparkalekuak ezarriak dauden ratioak betetzen ditu, plaza pribatuak eta publikoak kontutan izanda bertan "erroldatuta" dauden ibilgailuak baino askoz plaza gehiago daude momentu honetan. Dena den, epe motzean beste hamarnaka kotxeendako aparkalekua amaitua egongo da urbanizazioko hurrengo faseetako bat amaitzeaz baitago.



ARRIZABALAGA
Aroztegia



PAKITA
Altzariak



Berezaio Ind. 10
Tel. 943 78 14 64

Sta. Marina, 6
Tel. 943 78 02 21

BUXALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTINGAK • NEURRIRA ENPOTATURIKO ALTZARIAK

IRAZOLA
Okindegia

Larrañe suzoa, 44
Tel.: 943 78 25 97
Mug.: 688 630 754
OÑATI



Guzuzko egia: egurrezko laquea

oposiziotik

Lourdes Idoiaga - EAJ

**GIZARTE AZPIEGITURARIK
HANDIENA**

2014ko abenduaren 19a Euskadiko pertsonen gizarte babeserako egun historikoa bihurtu da, Eusko Jaurlaritzak, hiru Foru Aldundiek eta euskal udalen izenean EUDELeK, Euskal Gizarte-Zerbitzuen zerbitzu edo prestazioen kartera adostu dutelako.

Eusko Jaurlaritzak sustatutako akordio hau historikoa da erakunde maila guztien arteko adostasuna (orain arte sekula ezagutu ez den adostasun maila) lortu duelako, baina batez ere, herritarrei onartzen zaizkien eskubideen garrantzia edo transzendentziagatikda aipagarria.

Lege honek eta bere garapenerako kartera-dekretuak zerbitzu, laguntza eta prestazioak **eskubide subjektibo bilakatu ditu**, hori horrela, herritarrek legalki exijitu ahal izango dituzte aurrekontuen egoerari erreparatu gabe. Hori esker, baldintzak betetzen dituen pertsona eskatzaileak, zerbitzu eta prestazioa jasoko du erakunde eskudunaren eskutik, eta erakunde hori behartuta egongo da, eta ezin izango ditu aurrekontu arazoia argudiatu, zerbitzu eta prestazioak ez emateko. Gainera, izaera, esparrua zein sarrera baldintzak... zehazten ditu eta lurralde guztietan modu berean eskaini beharko direla agintzen du.

[Jaurlaritzak, hiru aldundiek eta EUDELeK adostu duten Gizarte Zerbitzuen legerari esker, zerbitzu, laguntza eta prestazioak eskubide subjektibo bilakatu dira; hau da baldintzak betezen dituzten herritarrek legalki exijitu ahal izango dituzte.](#)

Halaber, Zerbitzu eta Prestazioen Zorroak erakunde maila bakoitzaren eskumenak zehazten ditu. Udalei dagozkienak, besteak beste: informazio eta aholkularitza zerbitzuak, etxez etxeko laguntza eta apartamentu babestu eta etxebizitza komunitarioetan ostatu ematea... Foru Aldundiei berriz, nagusiki egoitza zentroak, eguneko zentroak, dependentzia, ezintasuna, bazterketa eta babesgabetasuna, adopzioa eta harrera...

Azken finean, Lege hau landu duen mahai teknikoko partaide izateak eman didan ezagutzari esker, ondorioztatu dezakegu akordio honek Euskadin eraiki den gizarte "azpiegitura" handiena sortu duela; azken 30 urtetan, gure erakundeak gobernatzeko ardura izan dutenek egindako etengabeko apustu irmoari esker.

gobernutik

Xabi Pico - Bildu

**GAZTEAK POLITIKAREN
PARTE AKTIBO**

Gazteriak krisiaren eta, oro har, sistemaren ondorio latzak modu berezitan pairatzen ditu, eskubideen murrizketa eta **prekariatatea modu berezitan jasanez**. Sektore espezifikoak den heinean, beharrian espezifikoak ditu eta, ondorioz, gazte problematikari, beharriaz, zein eskubideen bermeari modu berezitan erantzun behar zaie.

Baina legegaldi hasieran esan genuen ez gentozela soilik gazteriarentzako programa konkretu batzuk, edo laguntza ildo jakin batzuk sustatzera eta bideratzera. **Gazteok erabakien parte izatea nahi dugu**, gazteoi zuzenduriko **politika konkretuetan zein politika orokorretan**. Hori horrela, **Gazteria Plan Integrala eratu dugu**, gazteekin elkarlanean eta hainbat eremu eta alor sektorial barnebiltzen dituen.

Gazteria plan integralaren baitan eta **Gazte Lokaletan esku-hartzeko** Gipuzkoako sustapen teknikarien hausnarketa eta proposamena aintzat hartuta aisialdi lokalen gaiari helduko zaio eta eraginpeko agente guztiekin prozesu bat bideratu. Horretarako **Gazte lokalen fenomeno soziala aztertu eta elkarbizitza protokoloa zehazteko partaidetza prozesua abiatuko da**.

[Gazteriak krisiaren eta, oro har, sistemaren ondorio latzak modu berezitan pairatzen ditu, eskubideen murrizketa eta prekariatatea modu berezitan jasanez](#)

Etxebizitza da Gazteriaren beste arazoetako bat. **2015ean alokairu soziala bultzatuko dugu**, etxe hutsak gazteen emantzipaziorako berrerabiltzeko apustua eginez eta gazteen baliabide eta beharretara egokituko diren alokairu politika bultzatuko dugu.

Bestalde, **Gaztelekuko proiektu hezitzailea** berrikusi eta Gaztematikaren baitan kokatuko da, eta bereziki, lurralde mailan garatzen ari den **Nerabeen Balio Anitzeko Zerbitzuaren** norabidean.

Enplegua ere gazteen beste arazoetako bat da. Lanpostu asko betetzeko esperientzia izatea eskatzen da eta honek gazte askori bideak ixten dizkie. Hau kontutan izanda gazteok lan munduan sartzeko politikak jarriko ditugu martxan, hala nola, udalean sortzen diren postutan esperientzia ez eskatzea, autoenplegua bultzatu eta laguntza bideratu.


Laburbilduz, **EH Bildutik gazteak politikaren parte aktibo izatea da bilatzen duguna**, gazte ikuspegitik, gure gizarteko arlo ezberdinak behatu, dauden problematikak aztertu eta alternatibak planteatuz.

KONTZEJUPETIK

ARGITARATZAILEA Oñatiko Udala **ZUZENDARIA** Iñigo Arregi
PUBLIZITATEA Aratz Losada **DISEINUA ETA MAKETAZIOA** Aratz Losada
KOLABORATZAILEAK Jerardo Elortza **SAILAK**
Etxagok Ama Begira (Gaztelekua) **INPRIMATEGIA** Gertu
TIRADA 5.500 ale **LEGE GORDAILUA** SS-357/91

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa • 20560 -OÑATI

Tel.: 943 78 20 72 • Faxa: 943 78 22 53

Posta-e kontzejupetik@oinati.net • **Publizitatea:** 

publi@oinati.net



HISTORIA

Gaur eguneko bizitzan askotan aipatzen dugu historia gure argudioei nortasun bat emateko. Historiaren manipulazaila asko ikusten dugu bai egunkarietan edo telebistan, horregatik gure mezua sakondu eta apaltasunez azaltzea gero eta gehiago sentitzen da gizartearen.

Historia, aldez aurreko azterketa bat egiteko oso baliagarria da, kontutan hartuta tresna baliagarria izan daitekeela eguneroko arazoei nola aurre egin jakiteko.

Gaur egungo testuinguruan nola osatu diren identitate nazionalak ulertzeko derrigorrezkoa bihurtu



Iñaki Igartua

da gure historia ondo ezagutu eta zabaltzea.

Gai izan behar gara gure identitatearen hasiera, eboluzioa eta transformazioa ondo ulertuz eta barneratuz, historiari merezi duen lekua emateko.

Historia ondo ezagutzea derrigorrezkoa da pertsonak espiritu kritiko batean osatzeko eta gure jokabidea, historia eta identitatea ondo ulertzeko mundu zabal batean.

Ez dugu ahaztu behar denon beharra daukagula eta denon artean erabaki behar dugula zein norabide hartu, egin dezagun orduan gure bidea adimen pixka batekin, mundu global batean bizi garela onartuaz, ikuspegi zabala garatzen, gure mezua ondo ulertu dezaten.

Bada garaia pedagogia gehiago erabiltzeko eta demagogia gutxiago.

EUSKARAREN ISOBARAK

Nekeza da neretako Kepa Elortzarekin alkarketia eta aldez edo moldez euskeria berandu baiño lehen berbagai ez hartzea. Pako Aristik Hizkuntzaren gaiñan (eta Politikaz, Kulturaz, Historixaren inguruan, Gizarte-diagnostiko estrategikuaz..., beti letra larriz) argittara ataratako atzenengo liburua irakurten nihardueta eta, diskurso oso eta interesgarri bezain zirikatzaillia topau nebela aittatu notsan, diferentia, gurekin gutxiespen konplexu bagerik, auzo-nagusikerixia jario barikua (frantses edo espanyola), garbixa, jantzixa, bakarrik txikar gutxi egin dittuenak egin leikienaren tankerakua: **‘Euskararen Isobarak. Hamasei gezur handi eta koda bat’**. (Erein Argitaldarixa, 1. argitalpena 2014ko urrixan). Egixazko gizurrak, bai horixe, irakurri eta benetan goguan hartzekuak herri xakaxa izango ezpagara, izan be, amnesiko gurago gauen arren, historixa eta errealdadia oso temosuak dira ezagutu ezkeru. Hona batzuk, bere berbetan:

● *“Euskarak ez du inoiz izan gaurko erabiltzaile kopururik.”* Bilakaera demografikua goguan hartuz baleike, baiña portzentualki eta lurralde zabalketiari dagogixonez...!. Dakargun Axular gogora (Gero, 1643 ondorentsu): *“Ceren anhitz moldez eta differenteiqu mincatzen baitira euscal herrian: Naffarroa garayan, Naffarroa behelean, Cuberoan, Lappurdin, Bizcayan, Guipuzcoan, Alaba-herrian, eta berce anhitz leccutan.”* Esanguratsua da oso Huescan 1349xan euskeria ebaltia debekatu egitten eben udal-ordenantzia, hiru mendez inddarrez egon zana.

● Kolonialismo mentalagatik sarturik dogun beste gizur bat: *“espainera eta frantsesa ere bertako hizkuntzak dira.” ‘Jatorrizkuak’* eurak be; iragan gertukuari leihotxo bat eraittia nahikua dogu gizurraz konturaketako baiña..., menderatuaren konplexua eta ezjakinttasuna. Esaterako, iparraldeko gaztiak Gerla Haundixan (1914) goguan Gorka Knörr kantari: *“morts pour la Patrie, morts pour la Patrie, eskuara baizik etzakiten haiek, morts pour la Patrie”*

● Eta toki faltagatik, atzen bat: gure hizkuntza-eskubidiak aldarrikatu egitten dittugunian, inposatzailliak (frantses edo espanyolak) *“euskaldunok euskara inposatu nahi dugula kontatzen duen leienda”*, konplexuz beterik geu, sinistu egittera be aillgau garena. Apur bat aurrerago, Ane Ablanedo euskera irakasliak



Juan Carlos Olaeta



“Euskalkiak ez lirateke aberastasun izango, alienazio politikoaren ispilu baizik” dio Pako Aristik

Berrian idatzitako artikulu batian izkiratua dakargu konplexu bariko hizkuntza-politika zer dan irakusteko: *“Espainola, frantsesa, ingelesa, alemana... Ez dut ezagutzen hizkuntza hegemoniko hauen aldeko hizkuntza-politikarik. Hauek politika dute, hitz handietan. Indarra. Inposizioa. Estatu propioa. Kito. Hori da munduan arrakasta duen politika linguistiko bakarra. Horixe hizkuntzaren normalizazioa”*. Esan barik doia Pako ados daguela: klabia, dioskue euskeriaren normalizatzaillie ofizialak, euskera modernua, erakargarrixa, limurgarrixa, maitagarrixa, goxogarrixa –eta *‘en libertad’*, jakiña-egittia da; beste gizur bat, euskeria **biharrezko** bihurketia da giltzarrixa eta horretarako Estatu propixua eratu bihar dogula dixo, honek be guztiz ezebe bermaketan ez doskun arren, baiña, **Gotzon Garateri** jarraituaz, egungo testuinguruan, estatu barik euskeriarenak (eta guriak) egin dau.

Sasue hartan artian liburua bukatu barik neukan. Kepa bat etorren pentsakizunekin, baiña halako batian kezkatu antzian bota nontan beste norbaittek aittatu otsala Pakok berak **euskalkixak** aberastasun letxe baiña **pobrezi** izango balira bezela hartzen zittuala, eta jakiña, Oñatiko euskeria 30 bat urtez sustaketan ibilli ostian horrek halako eziñegona sortzeen otsala barruan. Neuk liburuan halakorik ez nebela topau erantzun notsan, eta gaixaren gaiñan adittutako hitzaldi batian be arrastorik ez. Ba lagun, gaur liburua amaitturik, bukaera aldera, 169. orrixan ageri da: *“Zentzu honetan, gure euskalkiak ez lirateke aberastasun izango, alienazio politikoaren ispilu baizik... Orain arte uste izan dugunaren kontrako fenomeno da euskalkiena: pobrezia bat, galera bar, euskaldunok elkarrenganako arrotz egin gaituena”*. Zergatik eta zela hurrengo baterako itxi bihar; ulertu arren (arrazoi-bide zenbait gura dauenak Pakoren liburuan bertan eta atzenengo **Jakin** aldizkarixan (204.a) **Joan Mari Torrealdairen** *“Txillardegia. Batasunaren bidea urratzen”*, 11-94) eztoz nik egun iritziori bere horretan konpartitten, ezta urrik emun be, horregatik hartu egizuez zorionak eta eskerron zintzuak Kepa, Roberto, Koldo, eta jakiña, baita Jerardok be (eginddako hanka-sartziengatik eta aittamen pertsonalengatik nire barkamen-eskiarekin batera)




**Txantxiku
 Ikastola**

Txikitxoeren Jardunaldiak **2015**


ASTELEHENA MARTIRIOA EGUNA EGUNA EGUNA EGUNA EGUNA EGUNA

			1	2	3	4	 Lau hanketan eta oinez ibiltzen, erakutsi edo ikasi?
5	6	 7	8	9	10	11	 Zer abesten eta dantzatzen dute haurrek ikastolan? Gurasoendako saioa.
12	13	 14	15	16	17	18	 Golden 5: seme-alaba "disdiratsuagoak".
 19	20	 21	22	23	24	25	 Nola ikasten dute Ingelesa eta Frantsesa ikastolan?
26	27	 28	29	 30	31		 Txantxiku Ikastola, zer gara eta zer eskaintzen dugun.
							 Ate irekiak



OHARRAK:

- Aizkorak guraso eta neska guztientzat irekietatik dira.
- Aizkorak 18.00etan izango dira, Txantxiku Ikastola aretoan.
- Aizkorak, haurtzararekiko jardunak izango dira eta arteko ikurrak ere (Txantxiku berrak).



UDAL AURREKONTUAK - 2015



16,7 milioi euroko aurrekontua izango du Udalak 2015ean

► **Bilduk aurkeztutako aurrekontu egitasmoak %1,30eko jeitsiera du iazkoarekiko. EAJ abstenitu egin da**

16.742.668 euroko aurrekontua izango du Udalak 2015ean, iaz baino 221 mila euro gutxiago (-%1,30). Abenduaren 18ko osoko bilkuran onartu zituen udalbatzak datorren urterako aurrekontuak, Bilduren aldeko botoz eta EAJren abstentzioarekin.

Aurrekontu orekatua da, hau da, sarrerak eta gastuak parean dituen, baina, horretarako, 2,1 milioi euroko maileguaren beharra aurrekusten da. Hala ere, 2014. urteko likidazioaren arabera, mailegu horren zenbatekoa gutxitu edota beharrik ez izatea ere gerta daiteke.

Bilduren izenean Mikel Biain alkateak adierazi zuen aurrekontu onak direla, eta krisiak krisi, Udalaren egoera ekonomiko-finantzerioa saneatua dela azpimarratu zuen. Ildo horretan, gaineratu zuen gobernu taldeak saiakera berezia egin duela kostu eta gastu kontentzioan, beti ere oinarritzko gastu sozialak mantenduz eta, kasu gehienetan indartuz. Jarduera ekonomikoa eta enplegua sustatzeko ahalegin berezia egingo dute. Inbertsioen atalean, San Lorentzo eta Errekalde auzuneek, Olabarrietako bidegorriak, eta ETEO zaharrea musika taldeentzako lokalen egokitzapenak eramango dituzte diru partida nagusiak.

EAJ abstenitu egin zen aurrekontu proposamenaren aurrean. Lourdes Idioiaga bozeramaleak adierazi zuen, gobernu taldeak aurkeztutako egitasmo askorekin ados daudela, baina jeltzaleentzat garrantzitsuak diren proposamen batzuek ezezko borobila jaso dutela.

AURREKONTUAK DEPARTAMENTUKA

Komunikazioa eta partehartzea	...151.580	(-%7,64)
Gizarte Zerbitzuak1.922.881	(-%2,58)
Kirola1.060.990	(-%17,18)
Kultura1.516.833	(+%30,71)
Barne antolaketa6.384.098	(+%2,79)
Sozioekonomia514.872	(-%12,04)
Lurralde antolaketa4.416.822	(-%8,84)
Aisialdi hezitzailea774.589	(+%4,23)

‘Eltzia’ efektua

Udal aurrekontuak departamentuka aztertuz gero, Kultura sailean emango den %30,71ko (356 mila euro) igoera da azpimarragarriena. Horren arrazoi nagusia da, batez ere, ETEO zaharrea, Eltzia egitasmoaren barruan, herriko musika taldeentzako lokalak egokitzeko egingo den inbertsioa (300 mila euro).

Gazteria arloa hartzen duen Aisialdi Hezitzailea izeneko departamentuak ere %4,23ko igoera izango du. Honen arrazoi nagusia da, etxebizitzaren alokairua sustatzeko bideratuko den diru atala (108 mila euro), eta gazteen aisialdiko lokalen inguruan egingo den azterlana.

Barne antolaketa departamentuak ere %2,79ko igoera izango du, egingo diren kontratazio berriek eraginda batez ere. Besteak beste, Berdintasun arloko teknikaria eta Partaidetza eta dinamizazio sozialerako teknikaria (lanjardun erdiz) kontratatuko ditu Udalak.

SARRERAK ETA GASTUAK

DIRU SARRERA NAGUSIAK

- Udalen finantzaketarako Foru Fondoak: **6,5 milioi**
- Zuzeneko zergak (Kontribuzioa, lbigailuak, Jarduera Ekomomikoak, Gainbalioa, Obrak...): **3,6 milioi**
- Tasak (Hondakinak, kiroldegia, Etxez-etxeko zerbitzua, Eguneko Zentroa, kale okupazioa, kanposantua...): **2,4 milioi**
- Mailegu berria: **2,1 milioi**
- Oñargi eta Ur Jauziak enpresen dibidenduak: **761 mila**

GASTU NAGUSIAK

- Zerbitzuen kontratazioa: **5,2 milioi** (Etxe-etxeko zerbitzua: 670 mila; Kale garbiketa (FCC): 491 mila; -Eguneko Zentroa: 305 mila; Lorezaintza zerbitzua: 300 mila; -Argindar publikoa: 160 mila; -Jaiak: 117 mila...)
- Pertsonal gastuak: **4,7 milioi**
- Transferentzi arruntak: **3,2 milioi** (Mankomunitatea (hondak bilketa): 1,1 milioi; San Martin egoitza: 203 mila; Garapen bidean dauden herrialdeetarako dirulaguntzak: 203 mila; Musika Eskola: 138 mila; Pobrezia: 102 mila; Desbabestuentzako laguntzak: 101 mila)
- Inbertsioak: **2,1 milioi**
- Maileguen amortizazioa: **730 mila**
- Turismo eta Garapen Agetntzia: **288 mila**

EGOERA EKONOMIKOA

KRISIAREN ERAGINA

Krisia gurean gogor jotzen hasi zenetik zazpigarren urtea da jada, eta hori nabaritu egiten da udal aurrekontuetan. Bi datu horren erakusgarri: 2009tik 2015era **%9,29** jeitsi da udalaren aurrekontua; bestalde, udalaren diru-sarrera nagusia den Foru Fondoak **100 mila** eurotan bakarrik igo da, 2007tik gaur arte. Horrek, besteak beste, inbertsioak egiteko ahalmena ere jeitsi du; hala, 2009an **4,4** milioi bideratu ziren inbertsioetara, eta aurten **2,1**. Udala ahalegin handia egiten ari da departamentu guztietan gastuei eusteko, eta, hala, azpimarratzekoa da, sarrera eta gastu arruntak (+amortizazioa) alderatuz, **319 mila** euroko aurrezkia duela. Udalaren zorrari dagokionez, aurtengorako aurreikusten den mailegua kontratatuko balitz, 2015eko urte amaieran **4,2** milioi euroko zor bizia izango dule Udalak.

2015eko EGITASMO NAGUSIAK

► Inbertsioetarako 2,1 milioi euro izango ditu Udalak

Hona hemen 2011-2015 agintaldiko azken aurrekontuen arabera, Udalak aurten izango dituen egitasmo nagusiak arlo ezberdinetan.

■ SOZIOEKONOMIA

Krisi egoera kontuan izanda, enpleguaren sustapena izango da udal aurrekontuen zutabe nagusietako bat. Ildo horretan, herriko enprekin eta bestelako eragileekin batera eratu duen **Foro Sozioekonomikoan** lanean jarraituko du, enpresa eta unibertsitatearekin elkar-lanean, herriko enpresentzat interesgarriak diren proiektuak garatu eta, bide batez, graduatu berriei aurreneko lan esperientziak izateko aukera emanez.

Langabetuei zuzendutako lan-orientazio zerbitzua eta formazioa eskaintzen jarraituko du, eta baita

autonomoentzako ere

Ekintzailetasuna eta **enpresa berrien** sorrera sustatzeko promozio bekak ematen jarraituko du; 2014an hogeitau beka eman ditu. Langileak kontratazen dituzten enpresa txikientzako (50 langiletik behera) **dirulaguntza** programak ere indarrean jarraitzen du. 2014an zehar 6 pertsona kontratatu dira programa honen bitartez, horietako 4 emakumezkoak.

Horiez gain, Lanbide formazioa eta eskualdeko **ekonomia sustatu** eta **dibertsifikatzeko** zenbait programa ere bultzatzen ditu Udalak Mankomunitatearen bitartez, Foru Aldundia eta Lanbiderekin elkarlanean.

MERKATARITZA -TURISMOA
Herriko komertzio txikiaren aldeko apustua egiten jarraituko du Udalak. aurrekontua 35.000eurotik



MIKEL BIAIN / Bildu

“**Gastuei eusteko ahalegin berezia egin dugu, oinarritzko gastu soziala mantenduz eta kasu gehienetan indartzuz**”

“**Pertsonal arloan saiakera egingo dugu Berdintasuna, Partehartzea eta Gizarte Zerbitzuen arloak indartzeko**”

40.000ra igoz. Bestalde, **Moneta Sozialaren** (Txantxia) proiektua hirugarren fasean sartuko da eta ahalegin berezia egingo da herriko enprekin ere bat egin dezaten ekimenarekin.


Udalak 260 mila euro bideratuko ditu **turismo** arloko ekimen ezberdinak garatzeko, hauetako batzuk Mankomunitatearen bidez.

■ GIZARTE ZERBITZUAK

Ongizate zerbitzuen atalak 1,8 milioi euroko aurrekontua izango du. **Etxez etxekako** laguntza zerbitzurako 661 mila euro bideratuko dira. Gaur egun 92 familiek erabiltzen dute zerbitzu hau eta Udalak 32.400 orduko zerbitzua eskaintzen du.

Eguneko Zentroan 5 plaza onartzea eskatuko dio Udalak Foru Aldundiari.

Larrialdietarako dirula-



Musika taldeentzako lokalak ETEO zaharrean

2015eko inbertsiorik handienetako bat ETEO zaharrean egingo du udalak, 'ELTZIA' proiektuaren baitan, 300 mila euro bideratuko baititu musika taldeentzako lokalak egokituzera. Goiko planoan ikusten den moduan, 34m² inguruko 13 entsegu-lokal, erabilera anitzeko bi gela handi (60m² inguru) txaranga eta talde handientzat, grabazio estudio bat, eta hiru biltegi egokituko dira bertan, guztiak intsonorizaturata. Proiektuak ia 600 mila euroko aurrekontua du osotasunean, eta hiru fasetan egingo da. Aurten 10 lokal txiki eta gela handi bat egokituko dituzte.



guntzen partida mantendu egingo da 101 mila eurotan. **Desbabestuei** zuzendutako dirulaguntzak %17 igoko dira, 90.000 eurotik 101.800era.

Bestalde, Udalak San Martinen egokitu nahi dituen **apartamentu tutelatu**en proiektueta obrak aurten esleitzeko asmoa du.

■ LURRALDE ANTOLAKETA

Egoera okerreanean dauden auzuneak urbanizatu eta irisgarri bihurtzen jarraituko du Udalak, Ildo nonetan, **San Lorentzo** (200 mila), **Errekalde** (200 mila) eta **Zubillaga** (50 mila, gehi iaiztik dauden 150 mila) berritzeko lanak egingo dira.

Mugikortasun jasangarriari dagokionez, Ugarkalde eta Olabarrieta arteko **bidegorria** egiteko 250 mila euro bideratuko dira, eta beste 200 mila Olabarrietako **lurpeko pasabidea** egokitzeko. Ildo horretan, aurten bertan **bizikletaren ordenantza** onartuko du Udalak.

Bestalde San Martin auzuneko **jolas parkea** estali egingo da (15 mila euro), eta **Etxaluzeko parkea** berritzeko 30 mila euro ibideratuko dira.

■ NEKAZARITZA ETA AUZOAK

Landa guneeetako **bideen erabilera** arautzeko ordenantza egingo da, eta **landabide zaharren** berreskuratze lanerarako 50 mila euro bideratuko dira.

Bestalde, **Artia** mendiaren ordenazio plana garatzen hasiteko 10 euro bideratuko dira eta **Araotz-Txirikilaleku** mendiaren ordenazio plana egiteko 12 mila.

Ingurumen arloan, jasangarritasunaren aldeko programak (Ingurumen Astea, Zero Zabor Jardunaldiak, Mugikortasun Astea, Ura eta Erreken Astea, Elikadura Subiranotasuna) finkatu nahi ditu Udalak.

Ildo horretan, Udalaren **erosketa eta kontratazio publiko berdearen** gida-liburua egin eta aplikatzen hasi nahi du.

■ KULTURA

ETE0 zaharrean herriko **musika taldeentzako lokalak** egokitzera 300 mila euro bideratuko ditu Udalak.

Gainerakoan, herriko **kultur taldeen jarduna** eta argitalpenak diruz laguntzeko programak, eta **kultur sustapenerako** atala ere bere horretan mantenduko dira,

■ HEZKUNTZA

Udalak eta ikastetxeek osatzen duten Hezkuntza Mahaiaren ekimenez **Oñatiko Herri Curriculum**a eta **Eskolara Oinez** proiektuak garatuko dira. **Bide-Hezkuntza** programarekin ere jarraituko du Udalak, udaltzaingoaren bitartez.

Errekaldeko **kontserjearen** etxeko lehiok berrituko dira, eta **Aisialdiko Begirale** titulua lortzeko ikastaroa antolatuko du aurten ere.

■ EUSKARA

Euskara Biziberritzeko Plan Estrategikoa garatzen jarraituko du Udalak. Ildo horretan, eta udaletxeko erabilera planari dagokionez, **Bikain** ziurtagiriaren araberrako hobekuntza neurriak aplikatuko dira,

Bestalde, aurten argitaratu den '**Oñatiko Euskera**' lana zabaldu eta herritarrek ondare hori barneratzeko egitasmo ezberdinak jarriko dira martxan, eta '**Auzoko**', '**Mintzalaguna**' eta **Euskaren Eguna** ekimenak sustatuko dira.

■ KIROLA

Tenis pistaren estaltze lanak burutu ostean, iaiztik egiten

■ HIRIGINTZA

Eraberritze lanak egingo dira San Lorentzo, Errekalde eta Zubillagan

■ MUGIKORTASUNA

Ugarkalde eta Olabarrieta arteko bidegorria egingo da, eta baita Olabartako lurpeko pasabidea ere

■ GAZTERIA

Gazteei etxebizitza alokatzen laguntzeko dirulaguntza programa bat jarriko du abian Udalak 108 mila eurokoa

ari den Kirolaren Plan Estrategikoaren zain dago orain Udala, horrek markatuko baitu datozen urteetan egin beharreko inbertsioen bide-orria. Aurten, kiroldegiaren mentenurako inbertsio txikiak egingo dira, eta Eskola Kirola programari lehentasuna emango zaio.

■ BERDINTASUNA

Udalak teknikari berri bat kontratatuko du Berdintasun Planari dagokion dedikazioa eskaini ahal izateko. Horrez gain, ikastetxeetan eta herriko eremu guztietan berdintasuna bultzatzeko programak garatuko dira.

■ GAZTERIA

Dirulaguntza programa berri bat (108 mila euro) jarriko du martxan Udalak, gazteei etxebizitzak alokatzen laguntzeko.

Bestalde, gazteen aisialdiko lokalen inguruko partehartze prozesu bat egingo du Udalak, elkarbizitza protokolo bat zehazteko asmoarekin.

Bestalde, Gaztelekuaren kudeaketarako kontratua berrituko du, ikuspegi hezitzailea emanez. Horrekin batera, nerabe etorkinen integrazioarako programa garatzen jarraituko du, eta gazteen jarduera sozio-kulturalak sustatzeko 50 mila euroko diru-atala bereiztu da.

■ PARTEHARTZEA

Herritarren artean partaidetzaren kultura eta izaera komunitarioa zabaltzeko asmoz, teknikari bat kontratatuko du Udalak jardun erdiko dedikazioarekin.

Bestalde, auzo-alkateen foroaren eta auzo-elkarteen figura indartzeko ahalegina egin nahi du Udalak, 'Auzotasuna' programaren barruan egiten diren ekintzen zabalpena eginez udal komunikabideen bitartez.

■ OPOSIZIOAREN IKUSPUNTUA / EAJ

■ Guretzat inportanteak diren hainbat proiektu ezezkoa jaso dutelako abstenitu gara



EAJ abstenitu egin zen udal gobernu taldeak aurkeztutako aurrekontu proposamenaren aurrean. Lourdes Idoiaga bozeramaleak arrazoitu zuen esanez, ildo nagusietan bat datozela, "baina guretzat inportanteak diren hainbat proiektu ezezko borobila jaso dute".

Hala, kirol arloan, Urrutxun atletismo pista bat egitea proposatu dute jeltzaleek; "200 mila euroekin oinarritzeko pista bat egin liteke, eta gure herriko atletak ez lukete beste herri batera joan beharko entrenatzera. Beharra dagoela bistakoa da".

Bestalde, kiroldegiko arean Padel pistak egokitzeko proiektua idaztea eskatu zuen EAJk, 2016ko inbertsioetan sartu ahal izateko.

HIRIGINTZA

Hirigintza arloan, EAJk begi onez ikusten du Errekalde eta San Lorentzo eraberritzeko lanekin jarraitzea "aurreko legegaldian egindako planen arabera". Horrez gain, jeltzaleek nahi zuten Unibertsitate etorbidea, Aita Madina eta Lizaur kaleak hartzen dituen areako irisgarritasun proiektua idaztea, baina azken hau atzeratzea erabaki du gobernu taldeak.

Bestalde, EAJk eskatu du dirulaguntza lerro bat zabaltzea, etxebizitza zaharrek egin behar duten EITa (Eraikuntzen Inspektzio Teknikoa) eta hauen ondorengo eraberritze lanak diruz laguntzeko, eraikinaren irisgarritasuna eta elementu estrukturalak hobetzeko diren kasutean. Neurri honek herriko gremioen aktibitatea ere sustatuko luke EAJren ustez.

PUNTU BELTZAK ETA GAZTE LOKALAK

EAJk eskatu du Bidaurreta-Olakua-Olapoto aldean egin den argiteri aldaketa berraztertzea eta, bereziki, inguru horretan sortu diren puntu beltz edo ilunak hobeto argizatzea.

Gazteen aisialdiko lokalen inguruan Udala egiten ari den partehartze prozesuaren ondoren, ordenantza bat martxan jartzea eskatu du EAJk, erabiltzaileen eta bizilagunen eskubideaK eta segurtasuna bermatzeko.

MUGIKORTASUNA

Mugikortasun Planari dagokionez, Euskadi etorbidea, Bakardadeko Ama eta Aita Madina kaleetan bidegorria egiteko proiektu zehatza idaztea eskatu du EAJk. Ildo berean, bizikletaren zirkulaziorako ordenantza egiteko parte-hartze prozesu bat abian

■ Atletismo pista baten beharra begibistakoa da, eta 200 mila euroekin Urrutxun egin daiteke

■ Gazteen aisialdiko lokalen inguruko ordenantza bat egitea eskatzen dugu

■ Herri inguruko pasealeku nagusietan zerbitzuak (komunak, jarlekuak, argiteria..) jartzea proposatzen dugu

jartzea eskatu dute jeltzaleek, Txirrinka taldearena ez ezik, herriko beste eragile batzuen (jubilatuen, elbarrituen, merkataria eta ostalariak, ikastetxeak...) ikuspuntuak kontuan hartzeko.

Bestalde, herri inguruan dauden pasealeku nagusietan (Asentzio-Olabarrieta, Zuazola-Torrauzo...) zerbitzu guneak (argiteria, jarlekuak, komunak...) jartzea eskatu du EAJk.

Auzoetako bide publiko historikoei dagokienez, Olabarrieta-Berezaio eta Arabako Bidea (Elorto-Zamalbide) berreskuratzea proposatu dute jeltzaleek.

Bestalde, Aloña, Lizartza eta Duru inguruko larreetan espezie inbaditzaileei eta bereziki karduari aurre egiteko plana eskatu du EAJk.

Berdintasunaren arloan, enpresetan langileen kontziliazio-partekatua bultzatzea proposatu du EAJk, eta enpresa txiki eta ertainetan berrikuntza, lehiakortasuna eta atzerriratze planak sustatzeko 40 mila euroko diru partida.

ERANTZUNAK

Atletismo pistari dagokionez, Mikel Biaiin alkateak esan zuen ez duela uste une honetan lehentasuna denik. Gainera, Urrutxuko zigilatze lanak amaitu barik daudela eta IHOBek esan beharko duela zer egin daitekeen bertan.

Etxebizitzak zaharberritzeko dirulaguntza programari dagokionez, horretarako SURADESA elkarte dagoela gogorarazi zuen losu Lizarralde. Edozein modutan, laguntza horiek baldintza batzuekin eman beharko lirakekeela esan zuen, berritu ondoren etxe horiek hutsik gera ez daitezela.

GAZTEEN LOKALAK AZTERGAI



Gazte lokalen gainera parte hartze prozesua jarri du abian Udalak. Abenduan inkestak egin ditu lokal guztietan, gaur egungo errealitatea ezagutzeko. Orain gogoeta saio irekiak egingo dira gazte, bizilagun, lokalen jabe eta gurasoekin.

Gazte kuadrillek aisialdirako alokatzen dituzten lokalen fenomenoak asko zabaltzen ari da azkenaldian. Baita Oñatin ere. Udalak eskura dituen azken datuen arabera, halako 32 lokal zueden gure herrian iazko uztaillean. Egia da, baita ere, zenbait kasutan elkarbizitza arazoak sortu izan direla lokal horien inguruko bizilagunekin, zaratak eta bestelako arazoak tarteko. Kontua da, fenomeno berri samarra izanik, Udalak ez daukala lokal hauetako jardura arautuko duen ordenantzarik.

Beraz, hori guztiak kontuan izanik, Udalak gazteen lokalen inguruko azterlana egitea erabaki du, gai honen inguruan zeresana duten eragile guztien ikuspuntuak jasoz: gazteena, adin txikikoen gurasoena, lokalen jabeena, bizilagunena, eta gaian interesa izan dezaketen herritar guztiena.

Nere Zubia Kultura eta Gazteria saileko udal zinegotziak adierazi du helburua ez dela inondik ere gazteen lokalak ixtea. "Gazteen lokaletako jardura eroso eta seguru bat garatzeko baldintzak zehaztu nahi ditugu, eta aldi berean, herritarren arteko elkarbizitza hobetzeko aukerak eta proposamenak aztertu nahi ditugu".

Zubiak gaineratu du ez dakitela oraindik prozesuaren amaieran ordenantza bat egingo den ala ez, "baina bai ezarriko ditugu marra gorri batzuk; hau da, lokalek bete beharreko

GOGOETA SAIO IREKIAK

GAZTEEN SAIOA

(Gazte erabiltzaileak eta gazte eragileak)
URTARRILAK 14, GAZTELEKUAN, 18:30
'Gazte lokalak, zergatik eta zertarako'

BIZILAGUNEN SAIOA

URTARRILAK 21, BIDEBARRIETAKO
ERABILERA ANITZEKO GELAN, 18:30
'Gazte lokalak eta elkarbizitza'

GURASO ETA LOKAL JABEEN SAIOA

URTARRILAK 28, BIDEBARRIETAKO
ERABILERA ANITZEKO GELAN, 18:30
'Gazte lokalen errealitateak. Harremanak eta lokalen egoera'.



**GARBIKETA
ADMINISTRAZIOA
ETA KONPONKETAK**

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarleen administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47

Oñati

**PINTURAS
URBIA
MARGOAK**

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15



32 LOKAL
Gaur egun era
honetako 32 lokal
daude herrian

NEREA ZUBIA
Kultura zinegotzia

Helburua ez da lokalak ixtea, inondik ere, baina bai erregularizatzea segurtasuna eta elkarbizitza bermatzeko asmoz

JON LOPEZ
Gazteria teknikaria

Gazteen aisialdiari buruzko erradiografia egiteko baliagarria izango da azterlan hau, etorkizuneko aisialdi programak diseinatzerakoan kontua hartzeko



Lokalen inguruko prozesu partehartzailea koordinatuko duten udaleko eta Aztiker-eko ordezkariak

gutxineko baldintzak”.

Udalak ikerketa soziolinguistikoetan aditua den Aztiker enpresaren laguntza izango du partehartze prozesu hau burutzeko. Hasteko, herrian dauden gazte lokalen gaur egungo errealitatearen inguruko diagnostikoa egingo du. Horretarako, Gabonetako jaiegunak baliatuz, lokal guztiak bisitatu dituzte banan banan, informazioa batzeko: gazteen profila, bizilagunekiko elkarbizitza, segurtasun neurriak, egoera legala...

Oraian, urtarrilean 14, 21 eta 28an, gogoeta saio irekiak egingo dira (ikus ondoko taula) gai honen inguruan interesa eta zeresana duten alde guztien ikuspuntuak eta eskariak ezagutzeko asmoz. “Oso inportantea da denen iritzia ezagutzea eta, beraz, dei egiten diegu prozesuan parte hartzera” esan du Zubiak. “Parte hartze prozesu aberatsa eta hezitzailea izatea nahi dugu; bata bestearen lekuan edo azalean jartzeko ahalegina egin behar dugu, alde guztien eskubideak eta betebeharrak aitortuz”.

Gero, otsaila eta martxoan zehar alde guztien arteko saio bateratuak egingo dira, azken diagnostikoa egin aurretik. Maiatza edo ekainerako azterlanaren emaitzak izatea espero dute udal arduradunek. Gazteen lokalen gaineran egingo den azterketa honen inguruko informazio gehiago nahi duenak Gaztelekuko arduradunarengan jo dezake.

GAZTEEN AISIALDIA

Udaleko Gazteria teknikari Jon Lopezek adierazi du partehartze prozesu hau lagungarria izango dela baita ere herriko gazteriaren aisialdiari buruzko erradiografia egiteko, etorkizunean landuko diren gazteentzako aisialdi programetan kontuan hartu ahal izango dena.

Baserriko kiwi ekologikoak goxo-goxoak

3 tamaina (50kg baxak)

Haundiak 19€

Ertainak 14€

Txikiak 11€

IRADAN baserris • Tel: 943 78 18 32

Almaraz
Inmobiliar gestioa

Carmelo Pérez de Almaraz

“Gure bezeroen eskari eta beharrei erantzun nahian, etxebizitza, lokal, garaje, baserri, lursail edo pabiloi bat saldu edo alokatu nahi baduzu, dei lezaguzu”.

Tel: 679411444
www.almaraz.info



Autokarabanentzako aparkalekua eta piknik gunea egokituko dituzte San Martinen

Hile honen amaierarako lanak bukatuta egotea aurreikusten du Udalak

Natura turismoa eta, konkretuki, autokaraban turismoa negiten duen gero eta jende gehiago dagoenez, horiek erakartzeko helburuarekin egokituko du Udalak autokarabanentzako parkina San Martin auzune berriaren amaieran, bertako zuhaitziaren aldamenean, ondoko argazkiak erakusten duen moduan, Gainera, aparkalekuaren ondoan, piknik-gune bat ere egokituko dute. Abenduan hasi ziren lanak, eta ustekaberik ez bada, urtarrila bukaerarako prest egotea aurreikusten du Udalak.

Autokarabanentzako parkinak 18 plaza izango ditu, eta saneamendu sarerako hustubide bat eta iturri bat ere egongo dira bertan, ur zikinak bota eta ur garbia hartu ahal izateko. Gainera, komun publiko bat ere jarriko dute, autokarabana zaleei ez ezik, inguru horretan paseoa ibiltzen diren herritarrei zerbitzua emango diena. Autokarabanentzako 18 aparkalekuez gain, autoentzako beste 13 plaza ere egokituko dituzte, goiko planoak erakusten duen moduan.




PIKNIK GUNEA

Autokarabanentzako aparkalekuaren ondoan egokituko duten piknik-gunea bost eremutan banatuta egongo da; hauetako lautan, parrillak, mahaiaik eta paper-ontziak egongo dira, eta bosgarrenean iturria eta jarlekuak jarriko dituzte. Arbolak ere landatuko dituzte, itzala edo gerizpea eman dezaten.

Atseden gune hau irekia izango da, eta edozein herritarrek erabili ahal izango du, familian edo lagunartean piknik bat egiteko. Espazio berri honen bidez, San Martingo zuhaitziari bizitza handiagoa ematea espero dute udal arduradunek.



Komunak, ur zikinentzako hustubidea eta ur garbiarentzako hartunea izango ditu aparkalekuak



Semaforoa jarriko dute Olabarrietako bidegurutzean

Olabarrieta auzorako sarrera-irteera puntuan (GI-2630 errepideko 13,8 kilometro puntua) semaforoa jarriko du Foru Aldundiak, trafikoaren abiadura baretu, ibilgailuen sarrera-irteera erregulatu, eta oinezkoen segurtasuna bermatzeko helburuarekin. Goiko planoan ikus daitekeen moduan lau semaforo ipiniko dituzte; bi GI-2630 errepidean, eta beste bi auzoko bidegurutzean bertan. Zebrabidean jarriko den semaforoak oinezkoentzako pultsadorea edukiko du, eta gainerakoek kotxe detektatzaileak izango dituzte. Semaforoak jartzearekin batera, oinezkoentzako zebra-bidea argiztatu egingo du Aldundiak, auzotarren eskaria aintzat hartuz, eta isleta edo oinezkoentzako babesgune bat ere egokituko dute bidegurutzean, trafikoa hobeto bideratzeko. Lanak lehenbailehen egiteko asmoa adierazi du Foru Aldundiko Bide Azpiegiturako departamentuak. Inbertsioaren kostua diputazioak hartuko du bere gain, eta Udala arduratuko da mantentze eta artatze lanez.

Lorezaintza zerbitzua kontratatzeko deialdi irekia egin du Udalak

Herriko lorezaintza zerbitzu publikoa lehiaketara ateratzea erabaki du Udalak. Mantendu beharreko azalera 245.000 m²-koa da, eta honako eremuak hartzen ditu: herriko berdegune publiko guztiak, kiroldegiko kanpoaldeko berdegunea, San Martin eta Santa Lutzia zuhaitzia, Usako, Olakuako urmaela, auzokonpost gunea, eta hilerriko lorezaintza lanetarako errefortzua.

Udalak 235 mila eurotan (BEZ kano) finkatu du gehieneko lizitazio prezioa. Bertan sartzen dira pertsonalaren kostua, makineriaren mantenua, kontserbazio eta kontsumo gastuak, eta inbertsioen amortizazio gastuak. Kontratuak lau urterako izango da, beste bi urtez luzatzeko aukerarekin.

Zerbitzuaren esleipena egiteko honako hauek hartuko dira kontuan: eskaintza ekonomikoa, zerbitzuaren ezaugarri teknikoak, proposatutako hobekuntzak, ingurumen aldetiko hobekuntzak, eta proposamenaren zehaztapena eta edukia.

Deialdia Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, ondoren, 40 eguneko epea zabalduko da proposamenak aurkezteko. Udalaren webgunean eskura daitezke deialdia aratuko duten baldintza

Zubillagako etxe soziala errentan emateko deialdia egin du Udalak

Zubillaga auzoan (38 zenbakia-1. ezkerre) daukan etxebizitza soziala alokairuan emateko deialdia egin du Udalak. Eskatzaileek bete beharreko baldintza da, Oñatiko erroldan bost urteko antzinatasuna edukitzea; gainera, familia unitatearen urteko diru sarrerak ezingo dira izan lanbide arteko gutxieneko solata x 1.7 baino handiagoak. Eskatzaileen egoera sozio-ekonomikoa baloratuko dira etxea nori eman erabakitzeko. Informazio gehiago udaleko gizarte zerbitzuetan (Bidebarrieta 12 - 943037700).

Ugarkalde eta Olabarrieta arteko bidegorria egiteko lurra eskuratzeko prozesua hasi du Udalak

Ugarkalde eta Olabarrieta lotuko dituen bidegorriaren proiektua onartu zuen udalbatzak abenduko osoko bilkuran aho batez. Sestra Ingenieritza eta Arkitektura taldeak idatzitako proiekturaren arabera, bidegorria GI-2630 errepidearen ertzean egokituko da (Olabarrietara goazela bidearen ezkerreko aldean). Bizikleta eta oinezkoentzako bide segurua izango da; 3 metroko zabalera izango du, eta errepidetik babesteko hesiak eta argiteria ere jarriko dira. Proiektuak 409 mila euroko aurrekontua du.

Proiektua onartzearekin batera, bidegorria egokitu ahal izateko beharrezkoa den lurzorua okupatzeko nahitaezko desjabetze espedientea hastea erabaki du udalbatzak. Horrekin batera obraren onura publikoa, gizarte intereseko izaera eta lursailak okupatu behar diren aldeko deklarazioa egin du udalbatzak.



Olakua eta San Martin auzune berria lotzen dituen bidea egokitu du Udalak Olapotoko basoan, Aldakiño izeneko gunean



Aldakiño bidea prest

San Martin eta Olakua gertuago orain

Olakua eta San Martin beti egon dira elkarrengandik gertu, baina orain gertuago daudela ematen du, Udalak Aldakiño gunean berriro duen bidezidorrari esker. Askorentzat ezezaguna izango da Aldakiño izena, baina Oñatiko mapa toponimikoaren arabera, hori omen da Olapoto ondoan dagoen baso gune honen izena. Beraz, bideak ere izen hori behar luke.

Ondoko argazkietan ikus daitekeen moduan, 1,5 metroko zabalera duen hormigoizko bidezidorra egokitu dute bertan, Natur Eskola parean hasi eta San Martingo etxalde berriraino. Antxiñako bidea baliatu dute zatirik hadienean, eta bi lekutan bihurguneak egokitu dituzte pendiza arintzeko. Gainera, zenbait gunetan barandak jarri dituzte, segurtasuna bermatzeko, eta argiteria jartzeko hoditeria ere prest utzi dute. Egaralurrek egin ditu lanak 41.465 eurotan (Bez kanpo).

Oñatiko Herri Curriculumuma sortzeko jardunaldia

**URTARRILAK 21, ASTEAZKENA
KULTUR ETXEAN, 18:00**

Udal Hezkuntza sailarekin batera herriko ikastetxeek osatzen duten Hezkuntza Mahaiak Oñatiko Herri Curriculumuma lantzea adostu du, gure herriko kultur ondarearen tansmisioa bermatzeko helburuarekin.

Abiapuntu bezala, beste herri batzuetan gai honen inguruan izan dituzten esperientziak ezagutzea interesgarria eta lagungarria izan daitekeenez, herri curriculumaren inguruko jardunaldia antolatu dute. Urtarrilaren 21ean izango da, kultur etxeko zine aretoan. Arrasate, Orío eta Azpeitian egin duten lana eta izan duten esperientzia ezagutzeko aukera egongo da bertan, ondoren, Oñatin jarraitu beharreko bidea adosten hasteko.

Bidebarrieta kaleko zebra-bideak egokituko ditu Udalak

Udalak urte hasieran onartu zuen Hiri Mugikortasun Uraunkorrerako Planak oinezkoen pasabideak egokitzea jasotzen du, besteak beste. Hala, Bidebarrieta kaleko zebra-bideak berritzea erabaki du Udalak, kiroldegiko errotonda aurrean hasi eta Motxon kaleko bidegurutzeraino.

Bi lekutan (Zurrust parean eta Bellotza-D'or artean), altxatu egingo dituzte zebra-bideak, trafikoaren abiadura baretzeko; gainerakoak (kiroldegi ondokoa, Egaralur-DIA bidegurutzeko biak, eta Bellotza eta Errementari plaza lotzen dituenak) kaltzadaren parera jeitsiko dira, espaloian egin beharreko egokitzapenak eginda. Egaralurrek egingo ditu lanak 33.333 eurotan (BEZ kanpo). Datozen egunetan hasiko dira lanak.




350 txantxiko saria, gidabaimena euskaraz ateratzeagatik

Euskararen normalizazioan urrats berriak eman asmoz, gidabaimena ateratzeko ikas-materiala euskaratu zuen Mankomunitateak orain dela sei urte, eta hori sustatzeko 350€-ko saria zozketatu izan du urtero Udalak, azterketa teorikoa euskaraz gainditzen dutenen artean. Aurten 26 lagunek (azterketa egin duetenen %51) atera dute gidabaimena euskaraz, eta guztien artean zozketa egin ondoren Maider Usandizagari egokitu zaio 350 txantxiko saria.

San Lorentzoko jolas parkean berritze lanak egingo ditu Udalak

San Lorentzo auzoko haurren jolas parkean hainbat konponketa lan egingo ditu Udalak. Alde batetik, apurtuta dagoen balantzina kendu eta berria jarriko du, eta horrekin batera, mantentze lan orokorra egingo dute, ainguraketak hobetuz eta behar den tokietan kautxuzko zoru berria jarri. Garra enpresak egingo ditu lanak 3.373 euroko (BEZ barne) aurrekontuarekin.



EURI TANTETAN
EGUZKI IZPITAN,
IRUDIMENAREN
OSTADARRA:

ELKAR HEZI

ATE IREKIAK: OTSAILAK 1

1. txanda 11:00etan

2. txanda 12.00etan

- Sukaldaritza tailerra 11:00etan

-Do it yourself 11.00etan

- Erronka eta jolas kooperatiboak 11:00etan

www.elkarhezi.eus



Haur Eskola, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza :

Arantzazu kalea 18, tlf: 943 71 82 72

DBH eta Batxi: Santa Marina plaza 2, tlf: 943 78 28 70

Bakarkako bisitak egiteko edota informazio gehiago eskatzeko deitu 943 71 82 72 telefonora.



‘AUTOESTIMA ETA JABEKUNTZA’ du izenburua Oñatin emango duzun tailerrak. Gero eta gehiago entzuten den kontzeptua da ‘Jabekuntza’ (empoderamiento), baina oraindik ezezaguna da jende askorentzat. Zer esan nahi du zehazki?

Prozesu bati egiten dio erreferentzia. Emakumeok ditugun gaitasunak garatu, eta gizartean legitimatzen lagunduko digun prozesua; orain arte izan ez ditugun botere-guneak eskuratzen lagunduko diguna. Azken batean, berdintasunera eraman behar gaituen prozesua da; hau da, gizon eta emakumeok espazio eta aukera berberak edukitzera.

Kontua da, horretarako aukerarik izan ez duten kolektiboek gaitasuna lortu behar dutela aurrena; hau da, ikasi egin behar dugu geure buruarengan konfiantza izaten, egoki komunikatzen, lidergoa hartzen... Hitz batean esateko, geure buruarekin gustura eta seguru sentitzea, eta gizarteko arlo guztietan dagokigun tokia eskuratzea da helburua.

Alde soziala eta pertsonala duen prozesua da. Jabetze pertsonalak autoestimuan du abiapuntua; geure burua ezagutu, baloratu eta geure gaitasunetan sinistu eta konfiantza izan behar dugu.

Eta prozesu hori taldean egiteak lagundu egiten du?

Bai, taldeak asko laguntzen du. Lehen esan dudan moduan, jabekuntza tailerretan gai asko lantzen dira, baina abiapuntua beti bat izaten da: jaso dugun heziketaren analisia egitea, eta konturatzeko heziketa horrek prestatu gaituela emakumeak sumisio egoeran egoteko.

Ildo horretan emakume guztiok dugu zer esana; denok gogoratzen ditugu txikitik eman dizkiguten mezuak, denok ditugu gure bizi-esperientziak, eta horrek guztiak aberastu egiten du prozesua. Autoestimurako oso lagun-garria da elkarri entzutea.

Emakumeak beretako denbora hartu behar dutela diozu, eta horretarako lanak eta ardurak negoziatzen ikasi



■ PEPA BOJO / PSIKOTERAPEUTA

Geuretako denbora hartzen ikasi behar dugu emakumeok, horregatik errudun sentitu barik

‘Andraitz’ Oñatiko emakume talde feministak antolatu duen Jabekuntza Eskolaren barruan, Pepa Bojo (Valentzia, 1962) psikologoak zuzendutako **‘AUTOESTIMA ETA JABEKUNTZA’** tailerra egingo da urtarrila eta martxoa artean. Formaziorako eta hausnarketarako gunea izango da. Emakumeok dituzten gaitasunak garatzen laguntzea da helburua, horretarako behar dituzten tresnak konpartituz. Urtarrilaren 14an hasita, asteazkenetan (18:15-20:15) izango dira saioak ETEO zaharrean. Informazioa eta izen ematea a.jabekuntzaeskola@gmail.com edo 615781068 (beharrezkoa den kasuetan).

MAPFRE
Oñati

Parlu kalea, 5
20660 Oñati

Tel.: 943 78 12 65
Faxa: 943 78 07 85

CORTABARRIA
INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 07 • email: inkorta@telefonos.es

EMAKUMEOK TRADIZIONALKI JASO DUGUN GENERO AGINDU NAGUSIA DA, GEU GARELA GURE INGURUKO GUZTIAK ZAINTEAREN ARDURADUNAK, ETA HORREK ERRU EDO KULPA SENTIMENDU HANDIA ERAGITEN DU

behar duela, horregatik errudun sentitu barik. Logikoa eta arrazoizkoa ematen du, baina...

Baina errealitatean ez da gertatzen, batez ere zaintzari buruz ari garenean. Gizarteak emakumei ezarri digu zaintzaren (umeak, adineko pertsonak, etxea...) ardurua osoa, eta hori oso barneratuta daukagu. Emakumeok tradizionalki jaso dugun genero agindu nagusia da, geu garela gure inguruko guztiak zaintzearen arduradunak, eta horrek erru edo kulpa sentimendu handia eragiten du.

Besteak zaintzea izan da gure eginkizun historiko nagusia, eta zama historiko hori albo batera uztea zaila egiten zaio askori. Ondokoa baloratzen dugu gehiago geure burua baino, eta hori aldatu beharra daukagu. Geure buruari denbora eskaini behar diogu; pertsonalki garatzeko eta ondo sentitzeko espazioak eta bideak jorratu behar ditugu.

Baina emakume askok ez dituzte beraien sentimenduak adierazten, eta horrek arazoak ekar ditzake: karga emozionalak, estresa, antsietatea...

Bai, rol femeninoaren ondorio diren sintomak ikusten ditugu emakume askorengan: familiaren ardurua osoa bere gain hartzea, haserrea edo ezadostasuna ez adieraztea, ezetz esaten ez jakitea... Pilatuz doan karga horrek bere ondorioak izan ditzake. Horretaz guztiaz hitz egiten dugu, eta berba egite hutsa oso aringarria da.

EMAKUMEEN JABEKUNTZA ESKOLA

OÑATIKO EMAKUMEEN DIBERTSITATEA EZAGUTZEN Formakuntza Feminista

Jabekuntza Eskolaren barruan, 'Emakumeen dibertsitatea ezagutze' tailerra egingo da Garaipen emakume elkartearen eskutik. Emakumeen identitate anitzen inguruko gogoeta egingo da bertan; mitoak hautsi eta beste errealitateetara gerturatzeke asmoz. Hamar saio izango dira, hamabostean behin, astearteta. Andraitzen lokalean (San Juan kale, 5) edo g.jabekuntzaeskola@gmail.com helbidean. Prezioa: 30€ (langabetu/ikasleek 15€).

EGITARAUA

- OTSAILAK 10: 'Binarismo sexuala'
- OTSAILAK 24: 'Opresio edo zapalkuntzarako sistema ezberdinak'
- MARTXOAK 10: 'Patriarkatua'
- MARTXOAK 24: 'Amatasuna'
- APIRILAK 14: 'Ekonomia eta zaintza lanak'
- APIRILAK 28: 'Lesbiana, trans y bestelakoak'
- MAIATZAK 12: 'Etorkinak'
- MAIATZAK 26: 'Musulmanak'
- EKAINAK 2: 'Las de "funcionalidad diversa"'
- EKAINAK 16: 'Feministak'



Horrez gain, arnasketa teknikak ere lantzen ditugu. Oso ariketa edo tresna inportantea dela gure osasunerako. Lasaiago, erlaxatuago eta alaiago egoten laguntzen digu.

Gaur egun Berdintasun Programak lantzen dituzte ikastetxeetan. Aldatzen ari al dira gauzak?

Bai, noski, gauzak aldatzen ari dira, onerako, baina ez guk uste bezainbeste, zoritxarrez. Ikastetxeetan egiten den lana oso garrantzitsua da, baina gizartearen eta komunikabideetatik jasotzen ditugun etengabeko mezuen indarra oso handia da. Beraz, lan handia egin behar dugu oraindik.

Egia da, emakume gazteek ez daukatela lehengoan karga berberak. Gauzak garbiago dituzte, eta berretzat denbora eta espazioa hartzeko gaitasun handiagoa dute. Baina kontuz; berdintasun egoera batean bizi garen irudipena dute, eta gerora konturatzen dira ez dela horrela; bikote harremanetan esaterako, eskema zaharretan

erortzen dira, eta inkontzienteki bada ere, desberdintasun egoerak sortzen dira berriz ere.

Azkenaldian ugaritu egin dira genero indarkeria kasuak gure inguruan. Ze hausnarketa egiten duzu?

Garbi dago egoera sozial edo ekonomiko zailek frustrazioa, depresioa eta egoera kritikoak eragiten dituztela. Halako egoeratan ikusten da gure emozioak dominatzeko gai garen ala ez. Eta bistan da ezetz, ez daukagula egoera zailak maneiatzeko behar diren trebetasunak. Horregatik areagotzen dira indarkeria kasuak, ez bakarrik genero indarkeria, baita familia barrukoa ere (seme-alabengandik gurasoengandikoa).

Eta horrez gain zer gertatzen da? Bada, genero indarkeriaren oinarrian dagoen sustratoa azaleratzen dela; sakonean dagoen matxismoa agertzen dela, aldekoa erasotu beharrean, bere emazte edo neskalaguna erasotzera eramaten duena.

ARANBURU ALTZARIAK

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnak: 78 11 60 / 78 05 73

**ESTILO
GUZTIETAKO
ALTZARIAK**

**LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK**

distira
estetika zentrua

- Manikura eta Pedikurak
- Solariuma
- Gorputzeko Tratamenduak
- Aurpegiko Tratamenduak
- Depilazioa

San Lorenzo 4. behealdea | Tel. 943 78 08 86 | 20560 OÑATI
email/twitter: estetika.distira@gmail.com

VII. ESKAPARATE LEHIAKETA

Epaimahaiaren eta herritarren sariak JUANITOSARENTZAT



Saritutako guztiak udal ordezkariekin. Behean, lehen bi sariak jaso dituzten erakuslehoiak



Ehun urte bete ditu Josefa Lizarralde

Abenduaren 16an bete zituen ehun urte Josefa Lizarralde Aiaituak, eta halakoetan ohitura den moduan, Mikel Biain alkateak oroigarria eta lora sorta eder bat oparitu zizkion herritar guztien izenean. Antzuolako Arrandagi baserrian jaioa, Felix Billar zenarekin ezkondu zen Oñatiko Linantzibarreko Errotara, eta bertan bizi da gaur egun ere, alaba M^o Angeles eta bilobak inguruan dituela. Zorionez, gainera, osasuntsu dago oraindik Josefa. Zorionak!



Juanitosa izan da VII. Eskaparate Lehiaketako protagonista nagusia, berak eraman baititu bi sari nagusiak: epaimahaiarena (1.500 txantxi) eta herritarrena (500t). Bigarren saria (1.000t) **Antxon** harategiarentzat izan da, hirugarrena (500t) **Txokolateixaren**tzat, laugarrena (300t) **Urrutia Gizonak** jantzi dendarentzat, eta bosgarrena (200t) **Urtxin**entzat.

Saririk jaso ez bazuten ere, finlaisten artean egon ziren: Amalur, Arregi, Barue, Marku, Sesiñena eta Urzai.

Bestalde, **Luar** arropa dendak irabazi du eskaparate birtual onenaren saria (500 txantxi). Aurten lehen aldiz eman den sari honek, internet eta sare sozialen bidez egiten den promozioa saritzen du. Guztira 37 dendek parte hartu dute aurtengo lehiaketan, eta aurreneko aldiz txantxitan eman dira sari guztiak (4.500).

42.250 TXANTXI ZIRKULAZIOAN

Eskaparate lehiaketako sari bana-ketari ekin aurretik, Udaleko Sozio-ekonomia batzordeko buru Iosu Lizarraldeak azaldu zuen abenduaren 20ko datuz 42.245 txantxi zeudela zirkulazioan. Herritarrek, batzaz beste, 700 txantxi eskuratzen dituzte egunero.

Lizarraldeak aurreratu zuen, moneta sozialaren proiektua 3. fasean sartuko dela orain, eta datozen hilabeteetan herriko enpresekin lanean hasiko direla, 'Elkarri lagunduz' proiektura atxikitzeko aukera ezberdinak aztertzeko.



1596 TXANTXI ELKARTASUNERAKO

Elkar Hezi ikastetxeak abenduaren 13an antolatutako Elkartasun Azokan 1596 txantxi batu zituzten ikastetxeak jarritako salmenta postu ezberdinetan. Diru hori Caritasi eman diote, elkartasun proiektu ezberdinak garatzen laguntzeko. Jesus Mari Aranburuk jaso zuen txekoa

ETXEBIZITZA BERRIAK OÑATI ERDIAN

*Maiatzaren 1 Plaza,
2. zenbakian*

*3 logeletako
etxebizitza zabalak*

*Informazioa
eta Salmenta:*

Larrain S.L.
Tel.: 943 21 33 88
www.moyua.com

GRUPO **MOYUA**

Larrain
INMOBILIARIEN ERABILKETA



24 urte preso igaro ostean irten da Aitto



Hogeita lau urtez preso egon ondoren, abenduaren 4an utzi zuten asko Alberto Plazaola 'Aitto', eta Oñatira iritsi orduko Arrano taberna inguruan bildutako ehunka herritarrek egin zioten harrera beroa. Aittok eskerrak eman zizkien bertan bildutakoei eta espetxealdi luzean zehar ondoan izan dituen guztiei. Oraindik euskal herritar askok preso jarraitzen dutela gogorarazi zuen, eta lanean jarraitu beharra dagoela denak etxera ekarri arte.

Aittok ia hilabete etxean badarama ere, poza ez da oraindik erabatekoa, Auzitegi Nazionaleko fiskalak helegitea jarria baitu oñatiarra aske uzteko erabakiaren aurka. Gogoratu, delitu berberetatik Frantzian egindako espetxealdia kontuan hartu behar dela dioen Europako zuzentarau bati jarraiki geratu zela aske Aitto. Baina hurrengo egunean bertan, zuzentarau horren onurak mugatzen dituen legea sartu zen indarren, eta beraz, Auzitegi Gorenaren esku dago orain auzia. Hain zuzen ere, hil honen 13an dira biltzekoak zigor aretoko 15 epaileak.

Alberto Plazaola 1990ean atxilotu zuten Frantzian, eta bertan egon zen preso 1996ra arte. Espainiara estraditatu ondoren, 46 urteko gartzela zigorra jaso zuen, ETArekin Araba komandoari laguntza ematea egotzita.

Sakabanaketarekin amaitzeko garaia da

'Now, Euskal Herrira!' lelopean sakabanaketaren aurka urtarrilaren 10ean Bilbon egingo den manifestaziorako deia luzatu du Sarek. **Autobusak egongo dira Oñatitik.**

Euskal presoaren sakabanaketaren aurkako mobilizazio erraldoia egingo da urtarrilaren 10ean (17:30), Bilbon, Sarek deituta. Manifestazio erraldoia, plurala, zabala eta parte hartzailea izatea nahi dute antolatzaileek, sakabanaketaren aurkako aldarria lau haizetara zabaltzeko, baita Euskal Herriko mugetatik haratago ere. Horretara dator aukeratu duten leloa: *Now, Euskal Herrira!*

Euskal Presoen aurkako sakabanaketa politikak 25 urte bete ditu, eta milaka herritarren eskubideak urratzen ari dela salatu du Sarek. "Urraketa planifikatua da, erabaki politiko baten ondorio, minean eta mendekuan oinarrituta dagoena".

Manifestazioaren antolatzaileek adierazi dute sakabanaketak ez duela inoiz zentzurik izan, eta are gutxiago gaur egun, Euskal Herrian bizi dugun egoera berri honetan. "Gatazkak utzitako ondorio latz guztiei konponbide justu eta iraunkorra emateko garaia da, eta bide horretan urrats garrantzitsua da presoak Euskal Herrian egotea. Ezinbestekoa eta premiazkoa da sakabanaketarekin lehenbailehen amaitzea".

Horretarako mobilizaziora deitu du Sarek. "Gure indarreen sinistu behar dugu. Guztion ekarpena ezinbestekoa da sufrimendua eta konfrontazioa amaitzeko bidean oinarri sendoak jartzeko". Bilboko kaleak leporaino betetzeko deia luzatu du Sarek, "mundu osoari erakusteko euskal jendartearen gehiengo zabalaren benetako nahia".


SAKABANAKETA ZENBAKITAN

Gaur egun 460 euskal preso daude 73 espetxetan sakabanatuta. Horietatik 65 herritik 1.100-1.000 kilometro arteko distantzian; 126 preso 990 eta 800 kilometro artean, eta beste 170 preso 790-500 artean.

PRESO OÑATIARRAK

Joseba Arregi Alakanten (800km.) dago (22 urte preso). **Xabier Ugarte** Salamancan (400km) dago (17 urte preso). **Xabin Usandizaga** Cordoban (800km.) dago (17 urte preso)

Joseba Arregireren ilustrazioa 'Ateramiñe-14'ko azalean



Euskal preso eta iheslariaren sorkuntza lanak argitaratzen dituen Ateramiñe argitaletxeak hiru lan kaleratu ditu aurten, eta batek (Ateramiñe-14)

Joseba Arregi preso oñatiarrak egindako irudia du azalean. Kartzelatik herria irudikatzen du, baina herriko plazan kartzelan ohikoak diren kontrol dorre bat dago. "Josebak oso murriztuta dauka pintatzeko materiala, baina jarraitzen du sorkuntzaraekin" azaldu zuen Mixel Sarasketa Ateramiñeko kideak. Barrualdean 20 preso eta iheslari politikoren lanak biltzen ditu liburua, eta kontrazala aurten espetxean hil zen Arkaitz Bellon presoari eskaini diote.

Horrez gain, Ibon Muñoa preso eibartarraren 'Ainarak herrira itzuliko dira' bertso liburua, eta Ekaitz Sirvent zarautzarraren 'Urte ilunak. Nelson Mandela' itzulpen lana ere plazaratu ditu Ateramiñek (www.literaturakoa-dernoak.org).



IRITZIA

DISPERTSIOA

Dispersioa. Modu askotara ikus daiteke preso politikoen dispersioa. Ekonomikoki? Bisita bakoitza 200 € inguru gasolina eta pejetan bakarrik. Pertsonalki? 5 eta 9 ordu artean kotxean. Bai joateko, bai itzultzeko. Errepideak dakartzan arriskuekin 40 minutuko bisitetarako.

Dispersioa erabaki politiko bat da, mendeku bila dabilen politika penitentiario baten parte. Sare-k giza eskubideen planotik ikusten du: konstituzioak kondena etxetik gertuen daukan kartzelan bete behar duela dio. Eskubide bat da eta, beraz, eskubidea urratzen zaio etxetik urrun espexteratuz.

Ernai ados dago horretan baina kontuan hartu behar da egungo testuinguru politikoa. Presoen kolektiboak prozesuan parte hartu nahi du inplikaturako subjektu bat izaki. Zaballako espextera gerturatzeko eskaerak egin dituzte banaka eta ez dituzte onartu.

Aski da! Bake prozesua eta politika penitentiarioa ez dira bateragarriak. Gatazkaren ondorioak lurperatu nahi ditugu, guztiak. Sare-k deitutako urtarilaren 10eko manifestazioarekin bat egiten du oñatiko Ernaik. Aurrera egiteko dispersioarekin amaitu behar da.

Odei Aiastui

**PRESOEN ESKUBIDEEN ALDEKO SAREA**

Sare herri mugimenduak deituta, ehunka herritar batu ziren abenduaren 20an herriko plazan dispersio politikarekin amaitu eta preso eta iheslari politikoen eskubideak aldarrikatzeko. Giza eskubideen eta, konkretuko presoaren eskubideen alde ideologia eta pentsamolde ezberdinetako herritarrak aktibatzea da Sareren helburua, eta horixe irudikatu nahi izan zuten kolore ezberdinetako hariz ehundutako sarearen bidez. Urtarrilaren 10ean Bilbon egingo den manifestaziorako deia egin du Sarek.

**47 BIZIKLETARA INDIARAKO**

Zuazola-Larraña institutoak bigarren eskuko 47 bizikleta batu ditu Oñabike proiektuaren barruan. Orain konpondu eta txukundu egingo dituzte Gorputz eta Kirol Ekintzen Gidaritza zikloko ikasleek, eta ondoren Indiarara bidaliko dituzte 'Bicicletas Sin Fronteras' GKEaren bidez.

Zuazola-Larraña institutoak eskerrak eman nahi dizkie elkartasun ekimen hau aurrera ateratzeko lagundu duten guztiei eta, bereziki, bizikletak eman dituzten herritar guztiei.

**EDURNE AGIRREZABAL OMENDUA LAGUN LEKUN**

Olakua eta San Lorentzoko erretiratuek sortu duten Lagun Leku elkartearen josteko tailer bat jarri dute, besteak beste, eta jostunen zaindaria den Santa Lutzia eguna ospatzea erabaki zuten erakusketa batekin. Bide batez Edurne Agirrezabal auzoko jostuna omendu zuten. Edurnek Bergarako Confecciones Vascas enpresan lan egin zuen, baina etxean ere hainbat komponente egin ditu besteentzat.

EGUR-LAN
AROSZTEGIA
S.L. (I.A.S.)

BEREZAO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPLUZKOA)
TEL./ FAXA: 943 78 14 39 | lin.obarsabai@gmail.com
www.egur-lan.es

smk
san miguel kooperatiba

943 781 217

kale Izarra II - 20560 Oñati
www.sanmiguel.coop



Izena: Dionisia Deasa
Ogibidea: Langabetua

Zer da bizikleta zuretzat?

Egunero erabiltzen dudun garraio-bidea herri barruan ibiltzeko.

Zergatik eta zertarako erabiltzen duzu?

Gustatu egiten zait bizikletan ibiltzea. Oñati herri txikia da eta oso egokia bizikletan ibiltzeko. Erosketak egiteko, kiroldegira joateko eta herri barruko joan-etorriak egiteko erabiltzen dut. Batzuetan ibilaldi luzeagoak ere egiten ditut bidegorrian zehar, kirol pittin bat egiteko.

Ze abantaila ikusten dizkiozu?

Azkartasuna. Erosketak egitera noanean, adibidez, gauza asko ez badituzte hartu behar, askoz ere azkarrago egiten dut bizikletan. Gainera, hobeto sentitzen naiz; osasungarria da.

Zer egingo zenuke bizikletaren erabilera sustatzeko?

Nik ondo ikusten dut dena. Bidegorriak oso ondo daude, eta, egia esan, ez dut ezer faltan botatzen.

Nola ikusten duzu etorkizuna?

Ondo. Bizikletan ibili nahi duenak ez dauka aitzakirik. Gero eta jende dabil bizikletan. Paseorako ez ezik, eguneroko zereginetarako ere erabiltzea gomendatuko nuke nik.

Txirrinka (mahai-ingurua)

Oñati eta bizikleta mahaingurua

Pasaden abenduaren 10ean, Oñatiko bizikletaren inguruko mahai-inguru eder bat egin genuen. Aratz Losadak moderatuta, Juanjo Sagarzazu, Marijo Erostarbe eta Esteban Irustak, bizikletaren erabilera eta egungo egoerari buruz duten ikuspuntua eman zuten. Iritzi desberdinak entzun ahal izan genituen eta baita bertaratu zirenen kezka edo zalantzak batu ere. Oso baliogarria izan zen, etorkizunera begira gure ideiak garatzen joateko.

Etorri ez zinetenok ere, izango duzue bertan esandakoak ikusi eta entzuteko aukera ondorengo egunetan. Mahai-inguru osoa grabatu egin baikenuen. Mila esker hizlariari eta bertaratu zineten guztioi!



Mahainguru osoa grabatu egin zen.

Txirrinka

Gogoeta

Gu gara trafikoa



Kaleak autoz beteta ikusten ditugu egunero eta askotan barnean gidaria bakarrik doalarik.

Ba al zenekiten auto batek okupatzen duen lekuan 10 bizikleta kabitzen direla?

Elkarbanatu ditzagun autoak edo are gehiago, utzi ditzagun autoak eta goazen bizikletan edo garraio publikoan.

Gogoratu...

GU GARA TRAFIKOIA!

caravanas **Oñate**

• GALBARAGINTZA - CALDERERIA
Oñateko zabalzarria, 25 • Tel.: 943 71 63 60
www.caravanasoñate.com

• BIZIKLETAK
• ERREMOLKEAK
• TXIRRINDULARITZARAKO OSAGARRIAK
Oñateko zabalzarria, 25 • Tel.: 943 78 05 65
Alzako kalea, 32 (errikuusketari)

INGELESA IKASTEKO UZTAILEAN, HILABETEZ, GAZTEAK (15-18 URTE) ESTATU BATUETARA ERAMATEKO PROGRAMA SORTU DUTE ENPRESAGINTZAKO IKASLEEK



Mireia Isazelaia eta Jone Agirre

'American Dream'

Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza fakultateko LEINN (Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza) graduiko ikasle diren Jone Agirre oñatiarrak eta Mireia Isazelaia arrasatearrak 'American Dream' izeneko programa jarri dute abian. Uda partean hilabetean (uztaila) ingelesa ikastera Estatu Batuetako familia batera joan nahi duten gazteei (15-18 urte) zuzendutako programa bat da.

Nondik nora sortzen da 'American Dream'?

LEINN graduan Learning by doing (Eginez ikasi) metodologia aplikatzen dugu; hau da, benetako enpresak sortzen ditugu, teoria praktikaren bidez ikasi eta lantzeko.

Guk, konkretuki, American Dream proiektu hau sortu dugu, ikusten dugulako badagoela gabezia edo hutsune bat, ingelesa ikasteko gazteak Estatu Batuetara eramaten dituzten programetan. Gehienak oso garestiak dira (4.000€ inguru) eta guk programa hori berori 2.500€ inguruan eskaintzen dugu, kalitate maila berberarekin.

Antolakuntza sare sendoa eskatzen du halako proiektu batek. Nola moldatu zarete?

Proiektua ez da zerotik hasten. Lehen ere bazegoen enpresa bat Euskal Herriko ikasleak Illinois estatura eramaten zituena. Gu geu ere halaxe joan ginen Estatu Batuetara. Kontua da, orain dela bi urte enpresa horrek utzi egin ziola ikasleak hara eramateari, eta guk zulo hori bete nahi dugu.

Beraz, badaukagu familia sare bat Illinois estatuan, lehendik ere Euskal Herriko ikasleak hartu izan dituena etxean, eta, beraz, gure egiteko nagusia da hara joan nahi duten gazteak lortzea.

Zer eskainiko diezue Estatu Batuetan?

Hilabete osoko egonaldia hango familia batean. Esan behar da, lan hori musutruk egiten duten familiak direla; hau da, beraien borondatez hartzen dituzte ikasleak etxean, ezer kobratu barik, eta oso tratu ona ematen dute. Esperientziagatik dakigu hori. Horrez gain, egunean zehar hainbat aktibitate izango dituzte, txangoak ere egingo dira (Chicago, Ceder Poing parkea, lakuak...) eta kanpaleku batean astebeteko egonaldian parte hartzeko aukera izango dute, bertako monitore eta gazteekin batera.

Normalen 4.000 euro balio duen egonaldia 2.500 eurotan eskaintzen duzuek. Nola da posible?

Irabazi-margina estututa. Azken batean, gure helburua ez da dirua irabaztea honekin.

Zer sartzen da prezio horren barruan?

Hegaldia, hango egonaldia, programan sartzen diren aktibitateak eta aseguroa.

Guraso batzuek, beharbada, gazteegiak ikusiko zaituztete beraien seme-alabak zuen ardurapean uzteko.

Bai, eta horixe da gure erronka nagusia, alegia, gurasoen konfiantza irabaztea. Horregatik, garbi esan nahi dugu Estatu Batuetako familia sarea lehendik ere ezagutzen dugula, eta konfiantza osokoak direla.

Aurten talde txiki batekin (25 gazte gehienez) hasiko gara, gauzak ondo antolatu ahal izateko. Esan behar da, gainera, gure irakasleen babesa eta laguntza ere badaukagula.

Noiz arteko epea dago izena emateko?

Otsailaren 28ra arte. Baina lehenbailehen ibiltzea komeni da plaza mugatuak direlako.



INFORMAZIOA

americandream.koren@gmail.com

Mireia Isazelaia: 672418224

Jone Agirre: 685761016



Jone Agirre

Estatu Batuetako

familiarekin

eta bertako lagun taldearekin

OHARRA

2015eko LIZENTZIA ZIKLOTURISTA

2015eko zikloturista lizentziak Aloña Mendiko Txirrindularitza sailaren bidez tramitatu ahal izango dira.

Urtarrilak 14tik 23ra (hilaren 20an izan ezik), arratsaldeko 19:00etatik 20:30etara Aloña Mendiko bulegoetan egongo dira txirrindularitza saileko arduradunak lizentziak tramitatzeko. Urtero moduan ordainketa Gipuzkoako Txirrindulari Federazioaren kontu korrontean egin beharko da, eta ziurtagiria Aloña Mendiko bulegotara eraman beharko

da aipatutako egun eta orduetan. Lizentziak otsailan jaso ahaliko dira, bere momentuan zehaztuko ditugun egunetan.

Lizentziak Aloña Mendiren bitartez tramitatu ahal izateko beharrezkoa izango da elkarteko txirrindularitza saileko bazkide izatea edo egitea. Bazkide kuota 8€/urtekoa da. Bazkideak ez direnendako posible izango da bulego bertan egitea lizentzia tramitatzean.

Jakinarazi nahi dugu baita ere, gure bidez tramitatutako lizentziez bakarrik arduratuko garela, eta ez beste bide batetik tramitatzen diren lizentziez.

OÑATIKO KIROL SARIAK - 2014



ANDONI UGARTE, kirolari onena



PABLO GARCIA, entrenatzaile onena



PEDRO IRURZUN, kirolaren alde saria

Abenduaren 19an banatu zituen Udalak 2014ko Kirol Sariak, urtean zehar nabarmendu diren kirolariak saritu, eta kirolaren alde hainbat herritarrek egiten duten lana aitortu eta eskertzeko asmoz.

Urteko kirolari onenaren saria **Andoni Ugarte** futbolariak jaso du aurten. Andonik denboraldi bikaina egin zuen iaz Realeko gazte mailako taldean; Espainiako txapeladunen kopako finalera iritsiz eta Europako Txapeladunen ligako final laurdenetara iritsiz. Aurten Sanse taldean ari da. Taldekako kirol saria, **gazte mailako eskubaloi** taldearentzat izan da, denboraldi ederra egin ostetan, Euskal Ligara igotzea lortu zutelako. **Pablo Garcia** ere ondo merezitako saria jaso zuen, entrenatzaile gisa egiten ari den lanagatik. Aloña Mendiko maila guztietako taldeak zuzendu ostean, azken hiru urteotan Arrasaten ari da, 1. Maila Nazionaleko taldea zuzentzen, oso lan ona eginez. Kirolaren alde egindako lanaren saria **Pedro Irurzun 'Naparra'** rentzat izan da aurten, txirrindularitzaren alde bereziki hiru hamarkada luzez egindako lan ordainezina eskertuz.

Herritarren sarirako epaimahaiak proposatutako hiru hautagaien artean, **Iokin Garai** mendi lasterkariak jaso zuen saria, oso boto gutxiren aldearekin. **Arianna Burgos** gimnasialariak eta **Mikel Ugarte** duatletak ere txalo zaparra bana jaso zuten. **Abixaran** taldeak ere sari berezia jaso zuen, emakumezkoak atletismora hurbiltzeko egiten ari den lanagatik, eta **Isma Egaña** ere aipamen berezia jaso zuen, futbol jokalaria, entrenatzaile eta prestatzaile fisiko gisa egin duen lana eskertzeko.



IOKIN GARAI, herritarren saria



ISMA EGAÑA, aipamen berezia



ABIXARAN korrikalari taldea, aipamen berezia



ESKUBALOI NESKA JUBENILAK talde onena



Urgain

ESKOLA

*Guztiona guztion artean
kaltatezko, euskaldun ta publikoa,
lau zutaberen gainean eraikia
herriaren neurrikoa*

*Txiki-Txokotik, Larrañara,
ur gainean egindako bidaiak,
Errekalde ta Zuazola
bizitzaren ikasgaia.*



Txiki-Txoko gunea



Errekalde gunea



R.M. Zuazola gunea



**Larraña gunea
HHI-EPA gunea**



- ! **Ate irekiak:**
- ! **Errekalden, urtarrilak 31, 17:00 etatik aurrera**
- ! **Informazio bilera Zuazolan, otsailak 5,
18:00 etatik aurrera**
- ! **Matrikula Txiki-Txokon: urtarrilak 12tik 16ra,
maiatzean eta urrian**

www.goieskola.net

■ KROSSA

Aloña Mendi Gipuzkoako txapelduen Kadete mailan

Aloña Mendiko korrikalariak emaitza onak lortu dituzte kros denboraldi hasierako probetan. Hala, Kadete mailako taldeak garaipena lortu zuen Gipuzkoako Txapelketetan. Promesa mailan Mikel Ugarte 3. sailkatu zen, eta Junior mailan Sara Gomez 4. Senior mailan Aloña Mendi 2. sailkatu zen taldeka, eta beteranoen mailan hirugarren. Azpimarratzekoa, bestalde, esklarte mailan Aloña Mendiko Alebin mailako nesken taldeak Zarauzko krosean lortutako garaipena taldeka.



■ KARATEA

Bi domina Gabonetako sarian

Aloña Mendiko karate sailekoek bi domina lortu zituzten abenduaren 14an Hondarribian jokaturako Gabonetako txapelketan. Alebin mailan Alazne Unzurrunzaga 2. sailkatu zen Kata modalitatean (gerriko laranjatik marroira), eta Infantil mailan Karmele Egaña 3. sailkatu zen Kumitean (+50kg.). Azpimarratzekoa, bestalde, Xabi Garcia Aloña Mendiko karatekak Gerriko Beltza-!. Dan lortu duela.



■ ZIKLO KROSA



IKUSKIZUN APARTA

Ziklokros ikuskizun bikainaz gozatzeko aukera izan genuen abenduaren 21ean Urrutxuko zirkuito lokaztuan. Oñatikoen artean, Julen Umerez izan zen onena 5. postuan helmugaratu zelarik Gazte mailan. Zorionak antolatzaileei egindako lanagatik.

IRITZIA / Iker Alzelai Ugarte

“It’s a funny, old game”



XIX. mendean Ingalaterra aldean “futbola” izeneko kirola asmatu zutenean egin zituzten irudikapenak zein izan ziren ez dakit. Ziur nagoena joko hau beste pertsona batzuekin labana, makila edota aukiekin borrokatzeko ez zutela asmatu da. Horixe ikusi genuen azaroaren 30eko goizaldean Manzanareseko inguruetan. Komunikabideak azkar

ibili dira errua gutxi batzuei botatzen (Galiziarrei noski), gertatutakoa arazo sakonago baten ondorioa izan daitekeela aintzat hartu gabe. Simeone entrenatzaile zurigorriak, aldiz, istiluak “gizartearen islada direla” esan eta lasai asko geratu zen, bere taldeko jarraitzaile hiltzaileak babestu nahian. Errugbya edota pilota kirolak ere gizarte honen zati dira, eta goian aipatutako irudiak ez ditut inoiz ikusi. Erantzun konplexuko galdera batetara iristen gara orduan. Nor da FUTBOLA egoera honetara iristearen erantzule?

Lehenik eta behin, futbolearen aktore printzipal batzuk daude: jokalaria eta entrenatzaileak. Partidu aurretik lehia beretzeko egindako adierazpenak, zelaian bertan tranpak eginda irabazteko erabilitako trikimailuak, arerio nahiz epailearekiko errespetu falta. Horiek dira futbol jokalaria batzuk dituzten jarrerak. Lehia irabazteko edozer egiten dute, hori kiroltasunaren nahiz gizatasunaren aurkakoa izan arren. Entrenatzaile batzuk ez dira atzean gelditzen. Mourinhok, adibidez, min izugarria egin dio futbolari, emaitza bikainak lortu arren kirolaren munduan sartu dituen baloreak negargarriak baitira: aurkariak gutxiatea, harropuzkeria, gorrotoa. Horiek erabilita gorenera iritsiko garelakoaren ideia transmititzen digu. Ziur arrakasta lortzeko beste printzipio batzuetan oinarritutako bide bat dagoela.

Komunikabideetara pasako gara orain. Beraiek izaten dira jokalaria nahiz entrenatzaileen gainean presio jasanezina jartzen dituztenak, partidak irabazi eta ongi jokatu ezean beraien orrialde edo telebista-kateetan lurretik uzten baitituzte futbolaren pertsonaia nagusiak. Gainera, kazetari asko egoera beroetan suhiltzaile lanak egin beharrean adituak dira suteari egur gehiago botatzen. Txinpartak jarraitzen duen bitartean aldizkariak erosten eta programak ikusten jarraituko du jendeak.

Azkenik, jarraitzaile sutsuak ditugu. Zale askok itxaropen ikaragarriak ipintzen dituzte beraien futbol taldeetan, beraien bizitzako beste alderdi garrantzitsu batzuen gaitetik ipintzen dituztelarik. Horri aurretik aipatutako zelaian ikusitako ereduak gehitu, komunikabideen probokazioekin nahastu, eta emaitza ikaragarria daukagu: talde desberdinetako jarraitzaileen arteko gudak. Nork atera zarata gehien, nork eman egurra gehien. Bizitzaren alderdi guztietan lehiakortasun ikaragarria dagoen gizarte honetan zelai barruan ez ezik, kanpoan ere gailentzea bilakatu da batzuen helburu.

Futbolaren egoeraren erantzule desberdinak daudela ikusi ostean, jokalarietatik hasi eta ikusleetara pasa arte dauden guztiek kirol honekiko perspektiba aldatzearen lana egin behar dutela argi dago. Hori egin ezean hurrengo belaunaldiak futbolearen ikusi (eta ikasi) dezaketena tamalgarria izan daiteke. Balore okerrenak transmititzen duen kirola bilakatu daiteke. Dagoeneko Oñatin bertan horren adibide ugari ikusi ditut. Oraindik gogoratzen ditut haurtzaroan Azkoagainen entzuten nituen hitz itsusiak. Jakina da eskola kirolean guraso ugariren jarrera negargarria dela eta Herriko Futbol Txapelketan epaile nahiz arerioei zuzendutako irainak entzutea ohikoa da. Lan asko dago egiteko, jokabide asko aldatzeko, eta denbora hartuko duen zerbait da. Lur azpian dauden lagun britainiarrek beraiek sortutako jolas dibertigarria (“It’s a funny, old game” esamoldearen harira) zertan bilakatu den ikusiko balute...

ZUBIKOA KIROLDEGIA

KROSSFIT CORE

- Entrenamendu funtzional iraultzailea kiroldegian
- Probatu doan urtarrilaren 20tik 29ra

30 MINUTUKO ENTRENAMENDU FUNTZIONALA + 15 MINUTUKO CORE LAN KOROGRAFIATUA

E-Goitek kirol zerbitzuek KROSSFIT CORE izeneko jarduera berria eskainiko dute urtarriletik aurrera. Entrenamendu modalitate berria da, ohiko ariketa analogikoak egin ordez, mugimenduak lantzen dituen. Horrez gain, coreko (faja abdominala) entrenamendu espezifikoa landuko da. Gorputza bere osotasunean lantzen da. Denbora gutxian hobekuntza fisiko nabarmenak lortzen dira

ATE IREKIAK

Entrenatzeko modu iraultzaile hau ezagutzera emateko, saio irekiak eskainiko dituzte urtarrilaren 20tik 29ra, astearte eta ostegunetan 18:15-19:15. Krossfit Core jarduera doan probatzeko aukera izango dute bertara hurbiltzen direnek.



TEKNIKA OSASUNTSUEN HASTAPEN IKASTAROAK

PILATES, GAH eta SGA

Hilaren 16a baino lehen eman behar da izena



PILATES. Lau eguneko hastapen saioa. Urtarrilaren 19, 21, 26 eta 28an (10:15 edo 20:15). Prezioa: 17,8€ (abonatuak).

SGA (Stretching Global Action). Bi saio. Urtarrilaren 19 eta 26an (20:15), edo hilaren 21 eta 28an (17:15). Prezioa: 8,9€ abonatuak / 11,45€ Ez abonatuak.

GAH (Gimnasia Abdominal Hipopresiboa). Bi saio. Urtarrilaren 21 eta 28an (20:15). Prezioa: 8,9€ abonatuak. / 11,45€ Ez abonatuak.

OHARRA KIROLDEGIKO ITOGINAK DIRELA ETA

Zubikoa kiroldegiko tenis kantzari estalkia jartzeko lanekin bat, kiroldegiko zenbait gunetan (squash-kantxetan, gimnasioan, kantsa berdeko armailetan eta pilotalekura doazen eskaileretan) euria egiten duenean agertzen diren txintxinak eta iragazpenak konpontzeko isolamendu-lanak egiten gabiltza azaroz geroztik. Horrela bada, ur-jario arazoak agertu ohi diren guneean luzorua jaso, isolatu eta iragazpen-probak egin behar izan ditugu behin eta berriro arazoa lokalizatu eta konpontzeko.

Horrek guztiak eragozpen askotxo eragin dizkie erbiltzaileei: gehiegizko zarata, iragazpenak, ura lurrean, eta abar. Lan horiek guztiak amaitzeaz gauden honetan, bidezkoa iruditu zaigu suertatutako arazo horien arazoak azaltzea. Honegatik guztiagatik barkamena eskatu nahi diegu kiroldegiko erbiltzaileei azken hilabete hauetan eragindako kalteengatik.

OÑATIKO KIROLAREN PLAN ESTRATEGIKOA Diagnostikoaren aurkezpena

- **URTARRILAK 15, OSTEGUNA UDALETXEKO ARTEOAN, 19:00**

lazko martxoaz geroztik Oñatiko jarduera fisiko eta kirolaren inguruko plan estrategikoa egiten ari da Udala, Kirol Management enpresaren bitartez.

Lehen fasea amaitu ondoren, diagnostikoaren berri eman eta kontrastea egiteko herri-bilera antolatu da. Bilera irekia da, (interesa duen edozein herritar joan daiteke), baina dei berezia egiten zaie batez ere diagnosian parte hartu duten kirol eragile.

ARETO FUTBOLA

Harrobitik ekin dio berriz ere Areto Futbol sailak

Bi urtez areto futbol talderik gabe egon ostean, Kadete mailako talde federatua atera du aurtun Aloña Mendiko Areto Futbol sailak. Iaz hasi ziren taldea osatzen, eta Udaberri txapelketa jokatu ostean, aurtun Gipuzkoako ligan parte hartzea erabaki dute. Aitor Sanchezek zuzentzen du taldea, Iban Urrutia eta José Vilariñoren laguntzarekin. Datorren urtera begira, Kadetearekin jarraitu eta senior mailako (+18 urte) taldea ateratzeko gogoz dabilta, Xanti Bernal saileko arduradunak azaldu digunez. Urtean zehar egingo dute deialdia.



Etxeko partiduak idande goizetan (12:00) jokatzeko Zubikoa



'ALTXORRAREN UHARTEA'

MUSIKALA

Stevenson-en abentura-eleberrian oinarritutako musikala taularatuko du Ganbara Txiki abesbatzak urtarrilaren 17an, taldearen 10. urteurrena borobiltzeko

Ganbara Txiki abesbatzeko lagunak erronka zaleak dira, eta oraingo honetan benetako erronka ezarri dioten beren buruari. Taldeak hamar urte bete ditu aurten, eta ospakizunak borobiltzeko 'Altxorraren uhartea' musikala taularatuko dute. Lehenago ere egin izan dituzte musikalak, baina modu apalagoan. Honako hau ordu eta erdiko ikuskizuna izango da, Broadway-koen estilora, musika, dantza eta dekoratu ikusgarriekin.

Horretarako, literatura unibertsaleko abentura-eleberri garrantzitsuenetakoa den 'Altxorraren uhartea' (Louis Stevenson, 1883) moldatu dute. Jende asko lanean jarri duen ikuskizuna da. Ganbara Txiki taldeko 36 neska-mutikok eta bi nagusik egingo dituzte aktore lanak, abestuz eta dantzatuz; baina atzean guraso eta laguntzaile askoren lana dago, dekoratuak, atrezzoak, jantziak, makillajea... eta beste hainbat detaile txiki prestatzen. Sei hilabeteko lanaren emaitza da taula gainean ikusiko duguna.

Zubikoa pilotalekuan izango da musikala, eta bi emanaldi eskainiko dituzte; arratsaldeko 17:30etan lehenengoa, eta 20:00etan bigarrena.

Ordu eta erdiko ikuskizuna izango da, Broadway-koen estilora, musika, koreografia eta dekoratu ikusgarriekin



ANE MERTZERIA

- Joateko zerak
- Lentzeria
- Umeen jantziak

Kale Berrin, 54 DNATI

Cartonajes Arregui, S.A.

- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

■ PROTAGONISTAK



TEO MAIZTEGI

Jim Hawkins mutikoa izango da, altxorraren bila abiatuko dena



IRENE URZELAI

Molly izango da, Jim-i altxorra bilatzen lagunduko diona



NAROA ZUMALDE

Jamie izango da, Jim eta Molly-ren adiskidea



GORKA ARANBURU

Billy Jones kapitaina eta Long John Silver piratarena egingo du

Istoria

XVIII. mendeko gau ilun batean hasi zen guztia. Admiral Benbow izeneko bentan, hain zuzen ere. Bertara Billy Jones izeneko



persona misteriotsua iritsi zen; marinela zen, sekretu asko gordetzen zituen marinela. Billy Bones bentako jabearen semearen lagun egin zen. Jim Hawkins zuen izena. Gainera, gau hartan Flint kapitainaren mapa lortu zuen; altxorrak hainbat lapurretatan eskuratutako urregorria pilatzen zuen. Ordutik aurrera dena aldatuko zen...

Hala, Jim eta bere lagun batzuk, Trelawney eta Livesey doktorea, Hispaniola itsasontzian abiatuko dira Smollet kapitainaren gidaritzapean. Ustekabez beteriko abentura zirrargarria dute zain, besteak beste, laster konturatuko baitira Hispaniolako tripulazioa gaizkilez eta traidorez osatuta dagoela, horiek guztiak sukaldariz mozorrotutako John Silver pirataren gidaritzapean... hamaika pirata, hamaika marinela... denak altxorra eskuratzeko asmoarekin; eta guztiak jomuga bakarra: Altxorraren uharteta!

Lantalde zabala

Ganbara Txikiko 36 gaztek eta bi nagusik parte hartuko dute ikuskizunean, aktore, abeslari eta dantzari lanak eginez. Baina hauen atzean, eskenatokian agertuko ez badira ere, lantalde zabala dago. Arduradun tekniko eta artistikoez gain, Ganbara Txikiko haurren guraso talde bat ari da lanean dekoratuak, atrezzoak, jantziak, makillajea... prestatzen. 52 laguneko lantaldea, guztira. Detale txikiena ere mimoz prestatzen ari dira, ikuskizun ederra atera dadin.



Benta zaharra, itsasontzia, uhartea... dekoratu ikusgarriak prestatu dituzte musikalerako

Sarrerak

'Altxorraren uhartea' musikala ikusteko sarrerak **Txokolateixan** daude salgai **10** eurotan. Internet bidez ere eskura daitezke **www.ganbara.org** webgunean. Bi emanaldi egingo dituzte; arratsaldeko 17:30etan lehenengoa, eta 20:00eta bigarrena.

ARRI

Industria Hornidurak
Burdindegia

Goribar auzoa, 10 • Tel.: 943 78 11 18
suministrosarri@hotmail.com

Orain Oñatiarren zorhitzeak!



MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxe: 943 71 62 40

UNFIT

Lehen diskoa, bakarkakoa, plazaratu du Aitor Osunak

Elektro-pop estiloko hamar abesti bildu ditu, estilo ezberdinetakoak; pop komertzialetik (Madonna, Lady Gaga, Justin Timberlake...) hasi eta musika elektroniko alternatiboraino (James Blake, Björk, Massive Attack...)



www.facebook.com/AITOR-OSUNA

Donostiarra sortzez Oñatin bizi da azken bost urteotan Aitor Osuna, eta bere lehen diskoa plazaratu du, bakarka, 'Unfit' izenekoa, elektro-pop estiloko hamar abestirekin.

Pop elektronikoa egiten du Osunak, baina etiketa horren azpian estilo eta eragin ezberdineko abestiak aurkituko ditugu, pop komertzialetik (*Madonna, Justin Timberlake, Lady Gaga...*) hasi eta musika elektroniko alternatibo edo esperimentaleraino (*James Blake, Björk, Massive Attack...*).

Berak sortutakoak dira abesti guztiak, bai musika eta baita testuak ere. Ingelesez abesten du Aitorrek, horixe delako barrutik ateratzen zaiona. Gainera, musika mota honi ingelesa hobeto doakiola uste du berak. Dena den, aurrerago euskaraz abatea gustatuko litzaiokeela aitortu digu. Edozein modutan, melodiak du lehentasuna Osunaren musikan. "Lehenengo musika sortzen dut pianoarekin, eta ondoren moldatzen ditut letrak".

Nahikoa berria da oraindik musikaren munduan. Duela bost urte hasi zen solfeo, piano eta kantu eskolak hartzen Oñatiko musika eskolan. Gero, Fredy Peláezekin sakondu zituen piano ikasketak, sorkuntza eta inprobisazioaren arloan batez ere. Erreterriako rock talde batean eman zituen lehen urratsak, "baina ez ninduen betetzen, eta nire kabuz hastea erabaki nuen, neure gustuko musika sortzen. Duela urtebete hasi nintzen neure abestiak sortzen".



Oñati eta Arkupe tabernetan dago salgai 5€-tan. Youtuben ere entzun daiteke disko osoa

ZUZENKO EMANALDIK

Zuzeneko emanaldiak ere egiten ditu Osunak. Donostiako *Be-bop*, Eibarko *Koskor* eta Zumarragako *Alaska* tabernetan jo izan du, besteak beste, pianoa eta base instrumental bat lagun, bere abestiak eta beste batzuen (*Robbie Williams, Rem...*) bertsioak interpretatuz.

Azkenaldian lanpetuta ibili da diskoarekin, baina aurrerantzean ere zuzeneko emanaldiei ekin nahi die berriz ere. "Oñatin ere gustura egingo nuke saioaren bat leku publikoren batean, nire musika ezagutzera emateko".

Osunak Youtuben eskegi du diskoa oso osorik. Gustatuz gero, Arkupe eta Oñati tabernetan eros daiteke 5 eurotan.



Zorrak kitatzeko diskoa

Hogei urte bete dira **Lagash** taldea sortu zela, eta jarraitzaileei eskerrak emateko 'XX' izeneko bilduma kaleratu dute

Agur esan barik utzi zituzten eskenatokiak, eta orain, taldea sortu zela hogei urte betetzen direnean, disko berria atera du Lagash power/heavy talde oñatiarrak, jarraitzaileekiko zuten zorra kitatzeko asmoz.

Bi maketa —*A pesar del tiempo* (1997) eta *Vientos del norte* (1999)— eta disko bat —*El sueño y la traición* (2006)— plazaratu zituen Lagashek bere ibilbidean, ondo merezitako izena eta ospea lortuz Euskal Herri osoko metalzaleen artean. Milatik gora kopia saldu zituzten lehenengo lanarekin, eta emanaldi sonatuak eskaini zituzten, besteak beste Antonio Vegarekin eskenatokia konpartituz.

Orain, garai hartako abesti kuttunenak batu eta 'XX' izeneko bilduma lana plazaratu dute, ondoan izan dituzten



Aker eta Portu tabernetan dago salgai diskoa 5€-tan. Facebook-eko orrian ere eska daiteke

jarraitzaile guztiei eskerrak emateko. Hogei abesti ditu diskoak; horietako bi —*20 años* eta *Amen*— berriak dira; besteak, esan bezala, zaharrak dira, baina berriro grabatutakoak, gaurko soinuarekin, baina Lagash-en estiloari eta esentziari eutsiz. Jorge Sánchez taldeko gitarristaren etxean grabatu dute lan berria.

ETAPA BERRIA OTE?

Hasiera batean ez daukate kontzertuak ematen hasteko asmorik, baina diskoa izaten ari den harrera bikaina kontuan izanik, nor daki. Heavy-zale eta adituen artean oso kritika onak jasotzen ari da, eta lehenengo lanak ere eskatu dizkiete. Kontzerturen bat emateko gonbitea ere jaso dute jada.

Hala ere, zaila izango da, eskenatokitara itzultzea, batzuk kanpoan bizi direlako, eta nor bere proiektuetan murgilduta dabilelako. Hala, Andoni (bateria) Leize taldean ari da egun, Rock Privado-n aritu ostean; Julian (baxua) bakarka ari da abestiak sortzen 'J&J' zigilupean; Angel Lumbreras 'Lotis'ek ere 'Veneno' izeneko diskoa plazaratu berri du bakarka; Jorge (gitarra) eta Juanma (ahotsa) 'Alhma mater' taldean ari dira, eta bi disko plazaratu dituzte jada.

PERTSONA NAGUSIEN ZAINTZARAKO ZERBITZUA



Tfno: 943 71 84 79

bidebarri@terra.com

irrutia.bidebarri@gmail.com

ADMINISTRAZIO LANAK

-Kontratua egitea

-Gizarte Segurantzaz alta ematea

-Nominak egitea

HAUTAGAIEN AZTERKETA

-Enpresako konfidantza-zko langileak

-Esperientziadunak

URTARRILEKO AGENDA

■ **ANTZERKIA** / Urtarrilak 25

'ARRASTOAK'

urtarrilak 25 Udal Kultura sailak antolatuta, Dejabu antzerki labiratgiaren azken lana ikusteko aukera izango dugu Santa Ana aretoan. Intrigaz eta ezustez betetako barne-bidaia erakusten du. Lur izeneko emakumea da protagonista. Lurrek ez du sekula bere amari buruzko galderarik egin. Arrastorik utzi gabe egin zuen alde etxetik bera txikia zenean. Ordutik bakarrik egin behar izan dio aurre bizitzari, etxean harrapatuta bizi den aita zainduz, erantzunak bilatzeko astirik gabe.

Gutxien espero zuenean ama hilik topatu dute, eta galderak azaleratu zaizkio bor-borka. Galderaz galdera denboran atzera egingo du Lurrek, memoriaren zulo ezkutuenetan galduta uste zituen sentimendu eta muntroei aurre egiteko. Galdera bat egitea delako lehen arrastoa. **Santa Ana, 22:00.**



ARGAZKIGINTZA IKASTAROA HASTAPEN MAILA (Otsaila-Martxoa)

ILUNPETAN Argazki Taldeak hastapen mailako argazkigintza ikastaroa eskainiko du datozen bi hilabeteetan zehar. Etxean dugun argazki kamera ulertu eta hobeto erabiltzen ikasteko ikastaroa da. Teknikaz gain, irudien konposizioa ere ikusiko da, egiten ditugun argazkiak hobetze aldera.

Ikastaroa 15 ordukoa da, otsailaren 3an hasi eta martxoaren 24ra bitartean. Asteartetan (18:00-19:30) eta larunbatean (10:00-13:00) izango dira saioa (8 astearte eta larunbat goiz bat guztira). Prezioa: 60€

Izena emateko bi modu daude: ilunpetan@gmail.com helbidera idatzi, eta gaian 'Argazkigintza Hastapena ikastaroa' adierazi. Edota 605 753 966 telefonora deitu.

urtarrilak 25 **KONTZERTUA PAKO TABERNAN
KASERNARAT**



Irun eta Orereta arteko hiruko akustikoa, folk, blues eta rock estiloak jorratzen dituena. 2011n sortu zen taldea eta 2012an argitaratu zuten lehen lana. Iaz 'Inoiz izan ginena' singlea plazaratu zuten, eta gaur egun bigarren diskoa prestatzen ari dira. Hainbat sari jaso izan dituzte: Rockein! musika lehiaketan euskarazko talderik onena; Piratenmuska lehiaketan epaimahaiaren saria; Musikirun lehiaketako 2. saria **Igandea, 19:30.**

ZURRUST
TABERNA • JATETXEA
Bidebarrieta 6
Tel: 943 71 62 96
20560 OÑATI

FAGOR
INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA

IRRIEN LAGUNAK

Gaztetxera etorriko dira urtarrilaren 11n

Azken urteotako ohiturari eutsiz, urteari hasiera emateko Irrien Lagunen bisita jasoko dute Antixena Gaztetxean.

Urtarrilaren 11n, igandea, izango da saioa, 17:00etan. Hodei Magoa eta Tiritatxo etorriko dira aurten, eta magia ikuskizuna eskainiko dute. Urtarrilaren 7tik 9ra ikastetxe kanpoaldean eskuratu ahalko dira.



ERAKUSKETA

Oñatiko margolanen erakusketa

Urtarrilaren 7ra arte ikusgai dago kultur etxeko erakusketa aretoan Javier Garcia Imaz pintorearen 'Oñatiko margolanen erakusketa'. Asteleheneretik igandera, 18:00-20:00

HAURRENTZAKO ANTZERKIA

'Mollie Malonen ipuin sinestezina'



urtarrilak 24 Udal Kultura sailak antolatuta, Txalo Produzioak taldearen lan berria ikusteko aukera izango dugu. Mollie Malone neska oso berezia da. Bere urtebetetzean aitona erlojudendara joango da eta, ustekabean, abentura zirraragarria biziko du. Lau pertsonaia berezi ezagutuko ditu. Beraiekin jolastu, barre egin, ausnartu eta aurkituko du zein garrantzitsua den denboraz gozatzea. Istoria majiko eta dibertigarria, bukaera harrigarri batekin.

OHARRA

'OÑATIKO EUSKERIA' LIBURUAREN 'TXANTXIKU' LEHIAKETIA

Urten barri da "Oñatiko Euskeria" liburuaren bigarren ediziñoa; ediziño honek eztako leheningurak eukan CDia. Zemendiko Kontzejupetik "txantxiku" lehiaketiaren barri emun geben, eta nahasketarik sortu eztaadin, CDian agerketan diran Txantxikuak ezittugu kontuan hartuko lehiaketa honetan.



MENDI IRTEERA

OLABARTAKO BIRA / URTARRILAK 18

Aloña Mendiko Mendi sailak urtarrilerako antolatu duten mendi ibilaldian Olabarieta auzoari bira emango diote, bere mugak ezagutzeko. Danera, 12 km. eta 1000 m.-ko desnibela; 4-5 ordutan egitekoa. Bukaeran auzoko elkartean bazkalduko dute. Gehienez 35 pertsonendako tokia egongo da. Izena emateko azken eguna, urtarrilak 15.

KULTUR JARDUNALDIAK

Zuazola-Larraña ikastetxean

Urtarrilaren 23an hasi eta otsailaren 25era bitartean Kultur Jardunaldiak izango dituzte Zuazola-Larraña ikastetxean. Hala, urtarrilaren 27rako, txirrindularitzari buruzko mahaingurua antolatu dute Markel Irizar eta Markel Uriarte txirrindulariekin. Hilaren 30ean, Felipe Uriarte mendi-gidariaren bisita izango dute, eta beste hainbat jardura ere izango dituzte: baratze ekologikora bisita, elikadura jasangarria eta makrobiotikari buruzko hitzaldia, musika saio didaktikoak, txakurrekin lagundutako terapiaren inguruko tailerra...

HITZALDIAK ETA ATE IREKIAK

Txantxiku Ikastolan

'Txikitxoek Jardunaldiak' egitarauaren barruan, hainbat hitzaldi antolatu dituzte ikastolan: 'Lau hanketan eta oinez ibiltzen, erakutsi edo ikasi?' (urtarrilark 7); 'Nola abesten eta dantzatzen dute haurrek ikastolan?' (urt. 14); 'Golden-5 proiektu pedagogikoa. Seme-alaba distiratusagoak' (urt. 19); 'Nola ikasten dute ingelesa eta frantsesa ikastolan?' (urt. 21); 'Txantxiku ikastola. Zer gara eta zer eskaintzen dugu' (urt. 28). Hitzaldiak 18:00etan izango dira. Bestalde, urtarrilaren 30ean Ate Irekien eguna ospatuko dute.



M^o del Mar Urrutia Negueruela

Mozorrón Kalea 5 behea
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

HARALD LINDER

ETXETAN ERA GUZTITAKO KONPONKETAK

PERSONAK, LEHIAK, LAN FURDUNTAK, ARRIAK, PINTURU LANAK...



ORDEZKUNTZAK ETA MANTENTZILEAK

DIRAULAK, HERRIARRAK ETA ASKATU SANGUAK

ORARIA: 12:00-4:00 - 10:00-12:00 - 10:00-12:00

695 78 91 04 - 943 04 47 77

OÑATIKO VII. BERTSOLARI TXAPELKETA

Merezi zuen eta jantzi du txapela ANDONI GOITIAK

► Gorka Larrearekin aritu zen buruz-burukoan. Gaztelekua bete zuten ikusleentzat ere Andoni izan zen onena.



Aurreko txapelketetan bigarren eta hirugarren egina zen Andoni, eta azkenean lortu du txapela burura eramatea. Merezimendu osoz gainera. Saio bikaina egin zuen abenduaren 20an jokaturako finalean, eta bera izan zen sei finalisten artean onena, ez bakarrik epai-mahaiarentzat, baita Gaztelekua lepo bete zuten bertsozale guztientzat ere.

Eroso eta gustura aritu zen bertsoan, saioaren amaieran aitortu zigunez, hala ofizioka nola bakarka. Hona hemen, adibidez, gaia emanda ('Gaur hiru aldiz esan behar izan diozu aitari ama duela bi urte hil zela') kantatu zituen zortzi puntuko bertsoetako bat: "la bi urte betiko agur / esan geniola ama(r)i / Ezta erraza buelta ematen / gure etxeko panorama(r)i / Aitak eguna pasatzen badu / etorriko ez denaren zai / nola azaldu ez

datorrela / baina egoteko lasai / Mundu osoan ez da semerik / hori esplikatzeko gai / Egia esan nahi diot baina / egia gordina da ai / Nahiz ta aitari hartzen diodan / alzheimerren zenbat usai / ez dakit ez den oioitzen edo / eztun hortaz oroitu nahi".

Gainerako bost finalistak ere oso txukun aritu ziren, bereziki Gorka Larrea 'Txapel'; bera pasa zen buruz-burukora Andonirekin batera.

Oñatiko bertso eskolaren sortzaileetako bat izan zen Jose Mari Agirrebengoa zenaren senideen eskutik jaso zuen txapela eta saria Andoni Goitiak.

Hiru bertso saio ederrez gozatzeko aukera izan dugu txapelketaren harira. Zorionik beroenak bertso eskolari antolaketa lan bikainagatik. Txapelketa bi urte barru itzuliko da. Bienbitartean gozatu plazaz plaza.

FINALEKO PUNTUAZIOA

Andoni Goitia	427,75
Gorka Larrea	372,25
Egoitz Aizpuru.....	253,25
Maidar Arregi.....	252,75
Urko Egaña	241,50
Joseba Lasagabaster.....	239,50


EREGE BEZPERAKO BERTSO SAIOA

Txapeldun handien ondoan estreinatuko du txapela Andonik

Errege bezperako ohiko bertso saioan estreinatuko du txapela Andoni Goitiak, Amets Artzallus, Andoni Egaña, Sebastian Lizaso, Aitor Mendiluze eta Maddalen Arzallus bertsolari handien ondoan. Urtarrilaren Sean izango da, gaueko 10:30etan, Zubikoa pilotalekuan.

BERTSOLARITZAREN HISTORIA OÑATIN

'Oñatiko hitzen altxorra' liburua idatzi du Urko Egañak



XIX. mende buukaeratik gaur egun arte bertsolaritzak Oñatin eman duena jaso du Urko Egaña bertsolariak 'Oñatiko hitzen altxorra' liburuan. Gure herrian izan diren bertsolariak, bertsoaldi gogoangarriak eta beste hainbat datu bildu ditu liburuan. Herriko liburudendetan eta turismo bulegoan dago salgai.



**MEKANIZATU ETA KONPONKETAK OROKORREAN
TORNO ETA FRESADORAK, ZENBAKIZKO KONTROLA**

Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Telefonoa: 943 78 11 15 • Faxa: 943 71 82 50



Guardiako farmaziak

(gaueko 10ak arte)

ANDUAGA

San Lorenzo 3, 943 78 21 16
Urtarrilak 7, 8, 16, 17, 18, 26 eta 27, eta otsailak 4 eta 5.

IGARTUA

Kale Zaharra 1, 943 78 01 22
Urtarrilak 9, 10, 11, 19, 20, 28 eta 29, eta otsailak 6, 7 eta 8.

GARATE

Kale Barria 42, 943 78 05 58
Urtarrilak 12, 13, 21, 22, 30 eta 31, eta otsailak 1.

JULDAIN

Kale Barria 6, 943 78 11 28
Urtarrilak 5, 6, 14, 15, 23, 24 eta 25, eta otsailak 2 eta 3.

Guardiako taxilariak

URTARRILAK 5-11
JOSE LUIS RABANETE
658 732 709

URTARRILAK 12-18
IOSU LERTXUNDI
663 031 322

URTARRILAK 19-25
ANA ORUETA
943 534082 / 650 059 999

URT. 26 - OTSAILAK 1
JOSEBA ARANZABAL
943 78 02 52 / 636 257 169

OTSAILAK 2-8
JUAN JOSE URRRA
943 79 71 72 / 606 004 340

OÑATIKO TAXI GELTOKIA
943 78 03 65

MINUSBALIDOENTZAT EGOKITUTAKO TAXIA
943 400 500

Telefonointeresgarriak

UDALETXEA

Udaletxea943 78 04 11
Udaltzaingoa943 08 10 00
Oñargi943 78 07 08

Gizarte zerbitzua943 03 77 00
Enplegu zerbitzua943 03 77 00
Olaburu zentroa943 71 62 73

TURISMOA

Turismo bulegoa.....943 78 34 53
Arrikruz Kobak943 08 20 00

KULTUR ETXEA

Kultur Etxea943 78 03 53
KZ Gunea943 02 36 72
Liburutegia943 71 61 11

EUSKARA-HEZKUNTZA

Euskaltegia943 78 24 96
Txaloka Ludoteka943 25 07 15
Txiki Txoko Haur Eskola .943 71 64 05

KOMUNIKABIDEAK

Oñati Irratia943 78 20 72
Kontzejupetik943 78 20 72
GOIENA943 25 05 05

KIROLAK

Kiroldegia943 71 63 75
Aloña Mendi K. E.943 78 08 10

GAZTELEKUA

Gaztelekua943 71 60 94
Informazio bulegoa.943 71 82 57
Informatika gela943 78 33 04

BESTE BATZUK

Natur Eskola943 71 60 94
Musika Eskola943 78 31 74
Helduen Eskola943 78 35 77
Bake epaitegia943 78 02 54
Korreos943 78 08 54
Notaritzia943 78 04 15
Parrokia943 78 18 98

OSASUNA

Oñatiko anbul.943 03 54 30
Larrialdi zerb.943 46 11 11
Arrasateko osp.943 03 53 00
SOS DEIAK112
Gurutze Gorria943 76 55 76
DYA943 46 46 22

ERTZANTZA

Bergara943 53 47 20

SUHILTZAILIAK

Oñati943 41 53 01

GARRAIOAK

PESA902 10 12 10
RENFE902 24 02 02

Odol ateraldia

HURRENGO ATERALDIAK

URTARRILAK 16

Txantxiku Ikastolako aretoan
(San Juan kalea, 1)
17:30 - 19:30

Auzoetako plastiko bilketa

HURRENGO BILKETAK

ABENDUAK 16

Plastiko batzea ohiko bilketa puntuetan egingo da.
Bilketa lekuak:
Zañartu: Zuazola inguruan
Murgia: Asentsio ermitan
Olabarrieta: Bus geltokian
ETEO atzealdean

Urrutzuko garbigunea

Astelehenetik ostiralera
9:00-13:30 / 15:00-19:00
Larunbata 9:00-13:30

Tfn.: 943 78 36 67

Traste zaharren bilketa

HILEKO OSTEGUN GUZTIETAN

Traste zaharrak atera baino lehen, 943 71 19 38 zenbakira deitu behar da. Traste zaharrak 20:00-22:00 artean atera behar dira.

Merkatu Txikia

Garajea saltzen da, 2 plaza eta itxia. Sarrera Ultzezin kaletik. Deitu: 658 759 539

Oñatin, pisua osatzeko pertsona bat beharko genukueen bi langile gara. Interesaturik egonez gero, deitu mesedez arratsaldeko 18:00etatik aurrera 653 748 751 zenbakira.

Etxebizitza salgai, Oñatiko erdigunean. 68m², bi logela, komuna, sukaldea eta egongela. Guztiz hornituta. Prezioa: 190.000€. Deitu: 659720664

Garajea alokatzen da Errekalde auzoko 17. portalean. Deitu 667 957 848

Garaje itxia saltzen da. Ugarkalde auzoan garaje librea, bi kotxe sartu daitezke. Interesatuak deitu: 600 602 164

Garajea salgai edo alokairuan Ugarkalden. Garaje itxia, 18m². Deitu: 610751 017 / 645 515 257

Garajea alokatzen da Ugarkalde auzoko 2. atarian. Deitu: 629 489 613.

Duplexa salgai. Ultzezin kalea 11, behe solairuan dagoena. Etxeak 150m² baliagarriak ditu. Baita 17,50m²-ko garaje itxia eta 100m²-ko lorategia. Prezioa 355.000€. Deitu: 609074127 / 649887917

kontzejupetik@oinati.net / 943 78 20 72

Antxiñako fotografixia



Aspalditxoko belena

Gabonetan jaiotzak edo, Oñatin esaten dan lez, **belenak** jarteko ohitturia oso zuztartuta euki izan dogu gure artian. Elizetan eta eskoletan egoten ziran ederrenak, baiña etxe partikular askotan be ifintten zittuain negu-hasierako jai tradizional honeittako irudi tipiko horreik: **Jesus jaixo barrixaren inguruan, Ama Birjiñia, San Jose, astua, idixa, aingeruak, artzaiñak, hiru errege maguak** (Meltxior, Kaxpar eta Baltasar) euren **paje laguntzailliekin**, eta abar. Lehen adiña izan ez arren, orainddiok be ohitturiorrek gure herrixan jarraikatan dauela uste dogu.

Gure ume-denporan **belenik bistosuena ospittal zaharreko parbularixuan** moldaitten euen urtero karidadeko mojak. Eraikuntza historiko ha orain R. M. Zuazola institutuak okupaitten dauen orubeian kokatu zan 1960ko hamarkadiaren azkenaldira arte. Beti jaiotza haundixa eta dotoria egoten zan bertan, baiña urte batzuetan are ederragua montau eben **Bitoriano Beitia Kortakogain** oñatiarrak. Ohiko irudixaz gain **ikusgarrixak** izaten ziran Bitoriano artetsuak asmautako **errotia**, ur-salto, erreka eta guzti, edota boldaan bueltaka ibiltten zan **idi-paria**.

Baiña gaurko argazkixa be berezixa da. Larogei urte pasa eukiko dittu eta erakusten doskun **belena biziduna** da. Tama-lez eta asti faltaz eztogu banaka batzuk baiño identifikaitterik izan: Kale Zaharreko **Mari Tere Arregi** eta **Andina Arrazola**, Kale Barriko **Trini Mendizabal**, Atzeko kaleko **Korkostegitar** bat... Hala eta guztiz be, gabon-egun honeittarako ego-gixa dalakuan, orain argittaraketia erabagi dogu. Gaiñera zuek be besteren batzuk ezagutu dittuzuela pentsaitten dogu eta danon artian informaziñua hobeto osotu leikiela.

J. E.

Fotografixia Mari Tere Arregik eskuratu dosku. Argibidiak, berriz, Mari Tereri ez ezik Maixabel Elortza eta Rufino Oruetari be zor xaugu. Milla esker.



Arkauz zure etxea da.

ARKAUZ
GRUPO
ARETXABAETA 1950 - 2015 ARRASATE
65 urte

ETXE MOBEL
ALIZONIA
ARRASATE

FLEX
Luzerak eta etxeak

FLEX
Luzerak eta etxeak



**2, 3 eta 4 logeletako
ETXEBIZITZAK
177.259€ -tik**
Banku abalez berrmatxin

MOJASORO S.L. Informazioa: 689 420 761 Eraikitzailea: Egaralur www.egaralur.net



grupo
amuebladora
mondragonesa



**Zure etxerako behar duzun guztia,
kalitatea duen talde handi baten eskutik**



59 urte, zugandik gertu, etxeko goxotasuna sortuz...



Zigarrola 1
Tels.: 943 71 10 12/ 943 79 15 03
ARRASATE



centro hogar MUEBLES



Zerkaosteta, 3
Tel.: 943 71 10 113
ARRASATE